



Alberto Letona kazetari lemoiztarrak *Hijos e hijas de la Gran Bretaña* liburua aurkeztu digu ▶10



Ander Barroso EHUko ikaslearen arabera, telebista sakelako telefonoan doan eta Internet barik ikusteko aukera badago ▶22

hiruka

Uribe Kostako astekaria



18. zenbakia

2015eko
maiatzaren 28tik
ekainaren 3ra arte


Eskualdea jeltzalea da

EAJ nagusitu da 10 udalerrietan. EH Bildu 2. indarra da, eta Ahal Dugu, hirugarrena. PSE-EE eta PP jaitsi dira.

Sopela berreskuratu du EAJk, baina ezin ziurtatu Udal Gobernu osatuko duenik. Ezkerreko gobernu posible da.

Plentziarrek ere EAJri eman diote gehiengoa. Independenteen eta EH Bilduren arteko gobernuak zaila dirudi.

Udal Hauteskundeak Uribe Kostan



	EAJ	EH Bildu	PP	PSE	Ahal Dugu-k sustatutakoak	GUK	Besteak	Irabazi	Ikune	Zuriak eta baliogabeak
2015	30.772	14.922	10.140	7.412	5.883	5.809	4.632	1.697	1.152	2.748
2011	30.818	19.201	17.499	10.046	-	-	1.307	3.267	2.570	3.431

Ekainaren 4an Berbodromoa egingo dute Telletxe plazan, goizez eta arrastiz; lau txanda egingo dituzte. ▶7

Vicrilak fabrika berria eraikiko du Lamiakoko lurretan, ehun lanpostu sortuz. Platerak eta baxerak egingo dituzte. ▶8

Azebarri Eguna egingo dute ekainaren 6an Algortan, elkarteak aurkezteko eta euskara kalera ateratzeko. ▶11

Ibilaldiak Bilboko kaleak bere egingo ditu domekan, Harrobia Lanbide Heziketako ikastolaren ekimenez. ▶14

2015 Udal eta Foru Hauteskundeak Uribe Kostan

EAJk hauteskundeak irabazi ditu Uribe Kostako hamar udalerrietan, Plentzia eta Sopela berreskuratuta. Gainera, EH Bildurekiko aldea zabaldu du, koalizioak 4.279 boto (%22,29) galdu baititu 2011tik hona. Ahal Duguk sustatutako plataformek, berriz, emaitza onak lortu dituzte (bigarrenak dira Erandion eta Leioan, eta hirugarrenak beste herrietan). Bere aldetik, PP izan da bozka gehien galdu dituen: 7.359 (%42,05). PSE-EE ere jaitsi egin da, 2.634 boto (%26,22).

2015eko foru-batzarkideak, Busturia-Uribe barrutian



Egutegia

Maiatzak 30, zapatua

Hauteskunde-emaitzen kontaketa ofizialaren amaiera.

Maiatzak 31, domeka

Hautagaitzek erreklamazioak eta kexak aurkeztea.

Ekainak 1, astelehena

EAEko Hauteskunde Batzordearen ebazpen-ematea.

Ekainak 2, martitzena

Ebazpenaren aurkako helegiteak jartzea.

Ekainak 7, domeka

Hauteskunde Batzarde Zentralaren ebazpen-ematea.

Ekainak 8, astelehena

Hautetsiak aldarrikatzea.

Ekainak 13, zapatua


Udalen osatzea eta alkateen izendapena (Hautesien aldarrikapenari hauteskunde-azuzirik aurkeztekotan, uztailaren 3ra atzeratuko da).

Ekainaren 2. hamabostaldian

Bizkaiko Batzar Nagusien osatzea. Diputatu Nagusia uztailaren 13a baino lehen aukeratu beharko dute.


Bizkaiko eserlekuak

2011



Bizkaiko eserlekuak

2015



Batzar Nagusietan Ahal Dugu indartsu sartu da eta EAJ berriro ere nagusitu da

Uribekostarrek Bizkaiko Batzar Nagusietako 51 eserlekuetatik 13 bozkatu zituzten pasa den domekan. Busturia-Uribe barrutiko batzarkideak honako alderdietakoak izango dira: 6 EAJkoak; 4 EH Bildukoak; eta bana Ahal Dugu, PP eta PSE-EEkoak. 2011tik hona eserleku bat besterik ez da eskuz aldatu: Elsa Panparacuatrok lortu duena, PPk atzera egiteagatik lortu du. Guztira, lurraldean, EAJk 23 batzarkide metatu ditu. Atzean gelditu dira EH Bildu (11), Ahal Dugu (6), PSE-EE (7) eta PP (4). EAJk eskai-

ni dio PSE-EEri EAE mailan duten hitzarmena aldundietara eta udaletara ere zabaltzea. Idoia Mendiak onartu ezean ere, EH Bildu eta PP batuko lituzkeen gehiengo alternatiboak ez dirudi oso probablea. Gauzak horrela, eta egundoko ezusterik ezean, Unai Rementeria jeltokia izango da hurrengo ahalgusia, makila Jose Luis Bilbao getxoztarrarengandik jasota. Uribe Kostan, aipagarria da Ahal Duguk datu hobeak lortu dituela foru hauteskundeetan, sustatu dituen plataformek udal hauteskundeetan baino. ◀

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Euzko Alderdi Jeltzaleak udal hauteskundeetarako zituen erronka guztiei heldu die. Mapan berde ilunez betetzeko falta ziren Sopela eta Plentzia udalerrietan nagusitu da, eskualdean erabateko hegemonia lortuz. Gainera, EH Bildu urrundu du eta bere posizioa indartu du Barrikan, Gorlizen, Lemoizen eta Urdulizen; azken herri bi horietan gehiengo osoa irabazita, gainera. Bitartean, jeltkideak mantendu dira Berangon eta Leioan. Azkenik, EAJk izan dituen atzerapauso bakanak, Erandio eta Getxo, zinegotzi bana galtzera mugatu dira.

Udal gobernauak

Halere, gauza bat da maiatzaren 24an hauteskundeak irabazi izana eta beste bat ekainaren 13an Udal Gobernu osatzea, Lemoizen eta Urdulizen baino ez duena ziurra EAJk. Gainontzeko herrietan probabilitate gehienek jeltkideen alde jokatzeko badute ere, aste hauetan balizko gobernu alternatiboen inguruko txutxu-mutxuak entzungai izango dira eskualdeko plaketan. Horien arteko aukerarik serioena Sopelakoa izan liteke. Bertan, zinegotzi bat galdu arren, EH Bildu saia liteke ezkerreko gobernu bat osatzen. Horretarako, Orainen eta Denok Bateraren babes beharko luke. Lehenengo kasuan, Del Vigo EAE-ANV sosten-

gatzeko prest agertu zen 2007an. Zailagoa ematen du Denok Bateraren balizko laguntzak, Orainegaz tirabira handiak izan dituen. Plataformak asanbladan erabakiko luke, halere.

Barrikan, EAJrena ez den Udal Gobernuak gainontzekoen sostengua beharko luke: EH Bildu, iBarrika eta Orain. Nekez pentsa daiteke ezkerreko koalizioak alkate izandakoagaz edo bere zinegotzi ohiagaz hitzarmena egingo duenik. Berangon, EH Bilduk proposa dezake beste gehiengo bat, baina egingarri izateko Denok Bateraren eta PSE-EEren babes beharko luke. Erandion ere, sozialistak ezinbestekoak lirateke Ahal Duguk bertan eraturako Ganemos plataformak eta EH Bilduk Alkatetza izateko.

Getxoko kasua zientzia-fikziozko generoren barruan iker liteke, Imanol Landari hirugarren legealdia ukatzeko modu bakarra PP, GUK eta EH Bildu horretarako batzea bailitzateke.

Gorlizen posible litzateke zinegotzi bat eta 300 bat boto galdu dituen Gorlizko Talde Independentearen eta EH Bilduren arteko akordioa, baina 2011n ere posible izan zen aukera eta orduan ez ziren ados jarri.

Leioan, Getxon legez, Esnatu Leioak EH Bildu eta PP ados jartzea beharko luke, baina baita sozialisten laguntza ere: larregi. Plentzian, EH Bilduk independenteen sostengua bila dezake, baina ez du ematen horiek David Crestelo Alkatetzara eroango dutenik. ◀


Legenda

- EAJ**
- EH Bildu** (Bildu, Aralar)
- PP**
- PSE-EE**
- Irabazi** (Ezker Anitza, Equo, AR, EB-B, Berdeak)
- Ikune** (GIT, Plentziako Indep., GI)
- Ahal Dugu-k sustatutakoak**
(Denok Batera, Ganemos Erandio, Esnatu Leioa)
- GUK** (Ahal Dugu, Irabazi, Getxoko Indep.)
- Besteak** (iBarrika, PUM+, UPyD, PSyV, EKA, Orain, Aulki Zuriak, C's, Vox-FyV, AVXG, POSI)
- Zuriak eta baliogabeak**

DATU GUZTIEN ITURRIA: ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA

Urbe Kostako botoak udal hauteskundeetan


2011



EAJ (63).....	30.818
EH Bildu (41)...	19.201
PP (17).....	17.499
PSE-EE (15).....	10.046
Irabazi (3).....	3.267
Ikune (9).....	2.570
Besteak (2).....	1.307
Zuri-baliog.	3.431

Urbe Kostako botoak udal hauteskundeetan


2015



EAJ (67).....	30.772
EH Bildu (37)...	14.922
PP (9).....	10.140
PSE (10).....	7.412
ADk sust. (13)...	5.883
GUK (4).....	5.809
Irabazi (0).....	1.697
Ikune (6).....	1.152
Besteak (4).....	4.632
Zuri-baliog.	2.748

Alderdirik bozkatuenen mapa udalerriak

- EAJren gehiengo osoa
- EAJren gehiengo arrunta
- BILDUren gehiengo arrunta
- INDEPENDENTEen gehiengo arrunta



2015

Uribe Kostako zinegotzi berriak eta herritarrek emandako botoak

BARRIKA 9 zinegotzi








ERANDIO 21 zinegotzi













LEIOA 21 zinegotzi



LEMOIZ 9 zinegotzi



 M. TERESA OÑATE ZABALETA EH Bildu	 JUAN ANTONIO ELEJAGA ABADIA EH Bildu	 JUAN JOSE EZPELETA PEREZ iBarrika	 HERI LAGO-LEKUE FERNANDEZ Orain	BERANGO 13 zinegotzi			 ANABEL LANDA GAUBEKA EAJ	 MIREN IZASKUN ZUBIAUR ZARRAGA EAJ	 AITOR MIÑAMBRES AMEZAGA EAJ	 CARLOS JUAN COLLADO CRUZ EAJ	 ITZIAR AGINAGALDE AVEDILLO EAJ	 MIREN EDURNE AURREKOETXEA PEREDA EH Bildu	 AITOR LORES ITURRALDE EH Bildu	 AITOR ETXEBERRIA LARRAZABAL EH Bildu	 ALAZNE FERNANDEZ ZUNZUNEGI EH Bildu	
 RAFAEL VAQUERO GONZALEZ Ganemos	 M. MARGARITA VICENTE MARTINEZ Ganemos	 M. ARANTXA CENITAGOYA CALZADA Ganemos	 JONATHAN PEREZ GUTIERREZ Ganemos	 ANA ISABEL CRESPO HURTADO EH Bildu	 IKER JALON HERRERA EH Bildu	 ISAIAS VALDIVIELSO GARITAONAINDIA EH Bildu	 LOURDES CERRATO OGERIN EH Bildu	 ELENA PEREZ BARREDO PSE-EE	 JORGE GONZALEZ MORENO PSE-EE	 MAITE PEREZ BILBAO PSE-EE	 AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ PP	GETXO 25 zinegotzi			 IMANOL LANDA JAUREGI EAJ	
 IÑAKI AMORRORTU MARTINEZ GUK	 SUSANA ANDOLLO GONZALEZ GUK	 FCO. ENRIQUE PRADA OLLETA GUK	 ARANTZA GUTIERREZ PAZ EH Bildu	 OIER ATANO ITURRALDE FERNANDEZ EH Bildu	 MAITE ARRAIZA ARAMENDIA EH Bildu	 IBON RODRIGUEZ LARRINAGA EH Bildu	 J. LUIS TXEFO LANDA ARTECHE PSE-EE	 TERESA ESCALANTE REINA PSE-EE	 SANTIAGO SAINZ ROBLES C's	GORLIZ 13 zinegotzi			 ARANTZA ETXEBARRIA VILLABEITIA EAJ	 KOLDO MUÑIZ ESTANKONA EAJ	 ARANTZAZU OLABARRIETA GONZALEZ EAJ	
 FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA EAJ	 ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA EAJ	 XABIER LOSANTOS OMAR EAJ	 IDOIA BLASCO CUEVAS EAJ	 IKER AGIRRE BARTZENA EAJ	 DIONI ANDRES BLANCO EAJ	 RUBEN BELANDIA FRADEJAS E. Leioa	 BEGOÑA JUARISTI LINACERO E. Leioa	 JOSE IGNACIO VICENTE MARTINEZ E. Leioa	 DESIREE ORTIZ DE URBINA MARIN E. Leioa	 ARKAITZ FULLAONDO ELORDUI-ZAP. EH Bildu	 NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ EH Bildu	 JOKIN UGARTE EGURROLA EH Bildu	 JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES PSE-EE			
PLENTZIA 11 zinegotzi			 ELIXABETE URIBARRI URIARTE EAJ	 JOSE MANUEL ARDINES GONZALEZ EAJ	 NIEVES SAN SEBASTIAN LARRAZABAL EAJ	 JON ZAPIRAIN BILBAO EAJ	 IRANTZU FERNANDEZ BARCOS EAJ	 DAVID CRESTELO DOMINGUEZ EH Bildu	 ELENA DEBA BLANCO EH Bildu	 MIREN ZUTOIA AZURMENDI GIL EH Bildu	 GONTZAL AGIRIANO INTXAURTIETA EH Bildu	 KELTSE MACIAS ZARRAGA P. I.	 JOSE LUIS GOMEZ BELLIDO P. I.	SOPELA 17 zinegotzi		 GONTZAL HERMOSILLA RAMOS EAJ
 TERESA FERNANDEZ GARCIA PSE-EE	 JUANTXU DEL VIGO CRUZ Orain	URDULIZ 11 zinegotzi			 JAVIER BILBAO LOPATEGI EAJ	 JOSE IGNACIO OLEA LLONA EAJ	 MARI CARMEN KAREAGA JORAJURIA EAJ	 PEDRO ANGEL ELORDUI OTEGI EAJ	 ALAZNE BILBAO OLEA EAJ	 AITOR AIO MOTRIKO EAJ	 KOLDOBIKA ZUAZO GIBELONDO EAJ	 JOSU IRATZAGORRIA JAUREGI EH Bildu	 MARIA ROSARIO DIAZ GARCIA EH Bildu	 DABI ZUAZUA ALVAREZ EH Bildu	 TEODORO ANTUÑANO VADILLO DB	

<p>Leioa</p> <p>2011</p>  <p>2015</p>  <p>Botoak 2015</p> <p>EAJ (9)..... 5.202 (%35,70)</p> <p>E. Leioa (4)..... 2.356 (%16,17)</p> <p>EH Bildu (3)..... 2.280 (%15,65)</p> <p>PSE-EE (3)..... 1.862 (%12,78)</p> <p>PP (2)..... 1.377 (%9,45)</p> <p>Irabazi (0)..... 706 (%4,84)</p> <p>Aulki Zuriak (0)..... 217 (%1,49)</p> <p>POSI (0)..... 72 (%0,49)</p> <p>Zuriak..... 305 (%2,09)</p> <p>Baliogabeak..... 195 (%1,34)</p>	<p>Lemoiz</p> <p>2011</p>  <p>2015</p>  <p>Botoak 2015</p> <p>EAJ (6)..... 418 (%61,83)</p> <p>EH Bildu (3)..... 208 (%30,77)</p> <p>PP (0)..... 4 (%0,59)</p> <p>Zuriak..... 25 (%3,70)</p> <p>Baliogabeak..... 21 (%3,11)</p>	<p>Plentzia</p> <p>2011</p>  <p>2015</p>  <p>Botoak 2015</p> <p>EAJ (5)..... 968 (%42,23)</p> <p>EH Bildu (4)..... 646 (%28,18)</p> <p>Plentzia I. (2)..... 483 (%21,07)</p> <p>PP (0)..... 77 (%3,36)</p> <p>PSE-EE (0)..... 32 (%1,40)</p> <p>Zuriak..... 43 (%1,88)</p> <p>Baliogabeak..... 43 (%1,88)</p>	<p>Sopela</p> <p>2011</p>  <p>2015</p>  <p>Botoak 2015</p> <p>EAJ (7)..... 2.565 (%38,65)</p> <p>EH Bildu (6)..... 1.977 (%29,79)</p> <p>Denok Bat. (2)..... 642 (%9,67)</p> <p>PSE-EE (1)..... 341 (%5,14)</p> <p>Orain (1)..... 336 (%5,06)</p> <p>Irabazi (0)..... 310 (%4,67)</p> <p>PP (0)..... 218 (%3,28)</p> <p>Zuriak..... 153 (%2,31)</p> <p>Baliogabeak..... 95 (%1,43)</p>	<p>Urduliz</p> <p>2011</p>  <p>2015</p>  <p>Botoak 2015</p> <p>EAJ (7)..... 1.042 (%48,49)</p> <p>EH Bildu (3)..... 584 (%27,18)</p> <p>Denok Bat. (1)..... 276 (%12,84)</p> <p>PSE (0)..... 107 (%4,98)</p> <p>PP (0)..... 62 (%2,89)</p> <p>Zuriak..... 37 (%1,72)</p> <p>Baliogabeak..... 41 (%1,91)</p>
--	---	---	--	---

Getxo

«Euskara sustatu behar dugu, arlo guztietan»

Algortako San Inazio autoeskola da inguruan klaseak euskaraz jasotzeko aukera ematen duen bakarra, bai teorikoak bai praktikoak.



Belate eta Larraitz Bueno ahizpak dira San Inazio autoeskolako irakasleak.

IKER RINCON MORENO ▶

Iaz 49 getxoxtarrek hartu zuten parte Gidabaimena Euskaraz egitasmoan. Horietako hainbatek Algortako San Inazio autoeskolan jaso zituzten klasea: teorikoak eta praktikoak euskara hutsean egiteko aukera ematen du. Bakarra da.

Gidabaimena ateratzeko egin beharreko guztiak, euskaraz ikasteko aukera eskaintzen duen autoeskola bakarra zarete inguru honetan, ezta?

Bai, inguru zabal batean. Getxoko batek dio Areetan badagoela bat eta idazkaria euskalduna dela, baina geuk bakarrik ematen ditugu azalpenak eta praktikak euskaraz. Beste batzuek galdetegiak eta liburuak euskaraz eskaintzen dituzte, baina azalpenak ez dituzte euskaraz ematen. Udalak euskarazko azalpenak ematen dituztelakoan iragartzen ditu, baina ez da egia. Jendeak euskaraz egin dezala nahi du Udalak, martxan jarritako kanpaina horregaz, baina autoeskola horiek euskaldunak ez direnez, jendeak ez du horietan euskaraz hitz egiten.

Zelan lortzen duzue euskarazko material guztia?

Orain gutxira arte, materiala oso eskas zen, eta ia ez zegoen. Orain, Udalagaz bat etortzen saiatu gara, eta Valentzian egindako liburua darabilgu. Pentsa, Valentziako pertsona batzuek egindako itzulpena erabiltzen dugu, ez dakit nork lagunduta. Ez dakit nola lortu duten, baina lortu dute. Zer gertatzen da? Ez da fin-fina. Orduan, askotan arazoak daude, eta horretarako gaude gu, zalantzak argitzeko. Materiala eta testuingurua daude liburuan, baina justu-justu.

Zelan egiten diete ikasleek aurre euskaraz tekniko horri?

Gauza kuriooa da. Udalak 100 euroko diru-laguntza ematen du, eta gazteak hona datozenean, euskaraz egiteko aukera ematen diegu. Hala ere, tekniko apur bat gatza dela ikusten dutenean, gaztelaniara jotzen dute. Baina zailtasun hori hizkuntza guztietan gertatzen da, dena da berria, bai ikasgaia, bai hizkuntza. Beti esaten diegu ikasgaia guztiz berria dela, bai gaztelaniaz, bai euskaraz. Hala, hitz berri horiek batean zein bestean ikasi behar dituzte; kontzeptua bera da. Orduan, batzuek aurrera egiten dute, baina bizimodua euskaraz egiten dutelako. Aukera hori da: batzuek bai, eta beste batzuek ez.

Azterketa teorikoa euskaraz egin daiteke, baina azterketa praktikoan, ez dago aukera hori...

Izugarria da hori. Euskaraz egitea bultzatzen du Getxok; diru-laguntzak ematen ditu, baina Bizkaiko Trafikoko arduradunak ez du nahi, eta ez ditu aztertzailerak birziklatzen. Beroiek euren artean dituzte liskarrak, eta ez dute aukerarik ematen euskaraz egiteko. Hala ere, zenbaitetan jendea euskaraz egiteko nahiagaz etorri da, eta nik eskatuta, euskaraz egiteko aukera eman izan digu aztertzaileraren batek. Baina, berez, ez dago aukera hori. Euskal Herrian halakorik gertatzea...

Hirugarren belaunaldia zarete San Inazio autoeskolan, ezta?

Aitite hasi zen Neguriko garaje batean, bertako jauntxoek kotxeak konpontzen. Han hasi zen jendea batzen, eta klaseak ematen. Amamak teorikoak ematen zituen, eta aititek, praktikoak, gaztelaniaz. Ondoren hainbat autoeskola izan genituen, eta familia kontuengatik, gu gelditu gara San Inazio izenagaz. Gu biok hasi ginen klaseak euskaraz ematen, orain bost urte inguru; teoria apur bat arinago, aukera izan genuenetik. ◀

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

**OIARBIDE
DEKORAZIOA**

· Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
· Eskaiola: moldurak, kornisak
· Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, GETXO

**Borbo
dr
moa**

EUSKARAZ
ELKARTZEKO
GUNEA

EKAINAK 4
ALGORTAko TELETXE PLAZAN
ORAIN DENA WWW.BORBO
DR.MOA.EZ

Arbitzatuak:

Babesleak:

PINTXOAK

**OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ**

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

ABIAN

Getxo

Berbodromoa, euskara-gunea

Ekainaren 4an, euskarak Telletxe plaza hartuko du, ekimen horren laugarren edizioagaz.

Egizu Getxo Euskaldun elkar-tekoek Berbodromoa egingo dute ekainaren 4an, eguena-gaz, euskara kalera ateratzeko. Aurtengoa, ekimenaren laugarren edizioa izango da, eta Algortako Telletxe plazan (euria eginez gero, San Nikolas Plazako frontoian) egingo dute. Horren bitartez, gure hizkuntza kale-ratzeaz gainera, euskararen erabilera indartu eta indar-erakustaldia egitea gura dute, bertaratutako jendea euskaraz berbetan ipiniz. Antolatzaileek diotenez, «euskara ikasten ari dena, euskaraz hitz egitera animatzea; euskaraz jakin arren euskaraz aritzeko aukera gutxi dituenari, aukera horiek ematea; eta nahiz eta euskalduna izan, ohituraz, euskaraz gutxi egiten duenari, motibazioa areagotzea» dute helburu.

Hala, hilaren 4an, plazan aulkiak jarriko dituzte, eta taldeka banatuko dituzte bertaratutako lagun guztiak; bost lagun egongo dira talde bakoitzean. Modu horretan, euskara dakiene jendeagaz elkartuko dute euskara ikasten ari den jendea. Berriketan egingo dute lasai; kafea, eskuan. Ordubeteko tartean, interes orokorreko hiru gai jorratuko dituzte: «Zein fama-tu gonbidatuko zenuke afaltzera?», «Loteria tokatuz gero, zer egingo zenuke?» eta «Etxebizitza erosi ala alokatu?». Gai bakoitza jorratzeko 15 minutu izango dituzte, eta gai batetik besterako tartean, parte-hartzaileak mahai batetik beste batera joango dira, berbalagunak aldatu ahal izateko.

Goizean, txanda bi egingo dituzte: 9:00etan eta 11:00etan; eta arrastian beste bi: 17:00etan eta 19:00etan. Hamaketakoak eta meriendak banatuko dituzte saio batetik besterako ordubeteko tartean. 400 pertsona baino gehiago elkartzea gura dituzte, antolatzaileek aitortu dutenez. ◀

info+: www.egizu.eus

Bizkaiko Jabekuntza Eskolen topaketara joateko autobusa

Ikasturte amaierako topaketa antolatu du Bizkaiko Jabekuntza Eskolen Sareak, eta horretan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dago hilaren 29ra arte. Oraingoan, jardunaldia Ermuan izango da, ekainaren 6an, zapatua. 10:30ean ipini dute hitzordua, eta amaitu artean, mahai-inguru bat, eztabaida bat, musika emanaldiak eta bazkaria izango dira. Bertan izango dira Miren Aranguren, Itxaso Gutierrez eta Izaro Andres, besteak beste. Algortako Telletxe plazatik irtengo da autobusa, goizeko 9:00etan. ◀

harremanetarako: berdintasuna@getxo.eus
944 660 136

Gizarte-alorreko 36 elkartek 191.121 euro jasoko dituzte

Udalak 191.121 euro banatuko ditu Udalerriko gizarte-jardueran lan egiten eta laguntzen duten 36 entitateen eta elkarteren artean. Udalak finantzatutako proiektuen %100 justifikatu beharko dute entitate horiek; finantzaketa, gehienez, %75ekoa izan arren. 2016ko urtarrilaren 15a baino lehen egin beharko dute hori. ◀



Politikaren Basoa

KOLDO ITURBE MENDILIBAR
EAJren bozeramailea

Ezberdinen artean adostu behar

Maiatzaren 24ko hauteskundeak, beste batzuen artean, Uribe Kostako mapa politikoaren homogeneizazioa ekarri deusku. EAJ-PNV izan da oraingo garailea, eta ziur asko, ikur bakarrek izango dira emaitzetatik sortutako tokiko gobernua.

Beste batzuen artean esan dot, beste irakurketa batzuk bere egin leikezelako, besteak beste, oposizioan egonda gauza asko esan eta kritikatu leikezelako eta gero gobernuan egonda, demonstratu egin behar diralako esandakoak ekintzetan bihurtzeko kapazak garen edo ez, Sopela kasu.

Aipatzekoa bere bai, Podemos inguruan sortutako taldeek ateratako emaitzak, gaur egungo gizartearen dagoan desegokitasuna jaso dabenak, ziur asko makropolitikan zer edo zer esateko askorik ez daukatenak baina bai mikropolitikan, hau da, eguneroko herritarren ingurukoan. Argi dago ohiko politikak eta politikariak ez dogula asmatu arlo publikoan egiteko moduetan eta horren ondorioz desoreka eta urruntasuna bistaratu da.

Azpitarratu beharrekoa baita bere Alderdi Popularraren behe-rakada nabarmena, estatu mailan hartutako erabakiengatik eta ziur asko izandako korrupzio kasuengatik. Horrek, zelan ez, euren buruetan hausnarketa sakon bat ekarriko dauelakoan nago, ongi etorria horrela bada.

Baina niretzat garrantzitsuen da: ELKARRIZKETAREN BEHARRA. Gizarteak argi esan deusku, gure herrietan sensibilitate asko dagozala eta danon artean, guttion interesak defendatuz, erantzun behar deusagula herriaren aginduari, eta horrela izan behar da, helburu bat lortzeko, akordioa beharko dogu, batez bere gai garrantzitsuenetan.

Herritarrak jakintsuak dira, egin dagigun horrela. ◀

Erandio

Irakasleen lan-poltsa zabalduko dute euskaltegian

Erandioko Udalak irakasleak behar ditu euskaltegian; hala azaldu du argitaratutako iragarki batean. Esan dutenez, lehiaketa bidez egingo dute irakasleak aukeratzeko hautaketa; horren ostean, lan-poltsak osatzeko. Hilaren 29ra arte izango dute interesatuek lehiaketan izena emateko aukera, udal webgunean edota Erandioko Udalean bertan. Orduan, eskabideagaz batera, ondorengo agiriak aurkeztu behar dituzte: NANaren fotokopia, eta deialdiko lehiaketa-atalean baloratuko diren merezimenduen egiaztagirien kopia.

Eskaintza behin-behineko lanpostuetarako da, beharren arabera. Azaldu dutenez, lanpostu hori lortu ahal izateko, beharrezkoak izango dira honako hauek: 16 urte baino gehiago eta 65 urte baino gutxiago izatea, unibertsitate-titulua edo titulu baliokidea izatea, eta 4. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea izatea. ◀

info +: www.erandio.net



Pasa baloia euskarari!

MAHAI-INGURUA

entrenatzaileentzako saioa

ekainaren 8an, 19:00etan, Faduran

Hizlariak:
Nerea Nanclares
Portugaleteko Oribeltza klubeko entrenatzailea eta arduraduna. Bizkaiko mini nesken hautatzailea eta haur kategoriako entrenatzaile laguntzailea.
Jokin Kamiruaga
Leioa Saskibaloia Taldeko entrenatzailea, Bizkaiko mini mutilen selekzioko hautatzailea eta Bizkaiko Saskibaloia Federazioko euskara arduraduna.
Hodei Lopez de Arkaute
Gasteizko Araski Saskibaloia Taldeko entrenatzailea, nazional lehenengo maila eta haur kategorietan.

Moderatzailea:
Ana Ramos
EITBko kirol kazetaria.





Leioa

Platerak eta baxerak egiteko fabrika zabalduko du Vicrilak Leioan



Gaur egun kopak eta edalontziak egiten ditu Vicrilak. © VICRILA

Vicrila enpresako arduradunek maiatzaren 21ean jakinarazi zuten platerak eta baxerak egiteko fabrika berria eraikiko dutela Lamiakoko lurretan. Denera, 14 milioi euroko inbertsioa egingo dute; teknologia eta makineria modernoengaz hornitu gura dute lantegia. Zuzeneko 50 lanpostu sortuko dira, eta zeharkako beste 50. Gainera, Vicrilako arduradunek diotenez, «aberastasuna sortuko da eremu honetan», inguruko hornitzaileenak izango ei direlako ordeko piezak eta lantegi osagarri gehienak. Aurreikusi dutenez, «urtean, fabrikak 8 milioi euro gastatuko ditu erosketetan, eta 10 urtean, 26 milioi euro baino gehiagoko ekarpena egingo du zergen bitartez». Kontratuak sinatu ostean, espero

dute urtebete barru, edo urte eta erdira, hasia Lamiakon platerak eta baxerak egiten.

Udal eta foru hauteskundeak izan baino hiru egun lehenago ezagutarazi zuten euren asmoa Vicrilako arduradunek. Adierazi zuten, fabrika Marokon zabaltzea aurreikusitako arren, azkenean, Leioa aukeratu dute, «euskal erakundeen laguntza eta bultzadari esker, eta Bizkaiko Foru Aldundia-gaz eta Eusko Jaurlaritzagaz egindako hilabeteetako lanaren ostean». Jarduneko udal agintari leioaztarrek pozez hartu zuten berria.

Orain dela gutxi, 8 milioitik gora inbertitu ditu Vicrilak kopa eta edalontzietarako labea berregiteko. Ekain hasieran martxan jarriko da labea, eta horrek 2025ean du iraungitze-data. ◀

Ekainaren 11ra arte, jota txapelketan izena emateko

Txikiak Txiki eta Gure Ohiturak dantza-taldeak batera, XV. Jota Txapelketa antolatu du Leioako Udalak. Izena emateko epea ekainaren 11n amaituko da, 18:00etan. Sariketa ekainaren 14an izango da, Kandelazubietan, 12.00etan. Gura duten neska-mutil bikote denek parte hartu ahal izango dute eta, ohiturak agintzen duen legez, tradizioko jantziakaz joatea izango da horretarako baldintza bakarra. Maila bi ezarri dituzte: 16 urte baino gutxiagoko dantzariak, eta dantzari nagusiak, 16 urtetik gorakoak. Gehienez, 10 bikote onartuko dira maila bakoitzeko. Kopuru hori gaituz gero, antolatzaileen esku geratuko da bikote gehiagoko onartzea ala ez. Parte hartu

gura dutenek izena emateko orria bete beharko dute, eta posta bidez edo posta elektronikoz Kultur Leioara bidali.

Sariei dagokienez, nagusien mailako lehenengo hirurek dirua jasoko dute: 300, 230 eta 210 euro, hurrenez hurren. 16 urtez azpikoetan ere, 220, 180 eta 150 euroko dirusariak egongo dira, hiru bikote onentzat. Maila bakoitzeko bikote-irabazleek, berriz, txapela eta lepoko zapia ere jasoko dituzte. Kategoria bakoitzean apamen berezi bat egiteko aukera edukiko du epaimahaiak. Azkenik, irabazle serratzen ez diren bikote nagusi denek 110 euroko dirusaria jasoko dute, eta bikote gazteek, 100 euroko dirusaria. ◀

info+: www.kulturleioa.com

Ikasketa-prozesu berriak jarri ditu abian Herrigune Leioak

Udaberriagaz batera, ikasketa-prozesu berriak martxan ipini ditu Herrigune Leioa hezkuntza-komunitateak. «Irakale» goiburugaz bataiatu ohi dituen horietan, arkeologia, astronomia, historia eta bakoitzaren zorientasuna jorra dezakete leioaztarrek. Besteak beste, maiatzaren 29an, barikua, historiaurreko zizelkatze-lanak egiten erakutsiko du Iñaki Libanok, 17:30etik 19:00etara. Gauean, ostera, esperientzia berri batez gozatzeko aukera eskaini gura diete ume eta nagusiei. Hala, Akarlandara igoko dira autobusez, Izan Gauaz gozatzeko, 21:00etatik 00:30ak bitartean. Izen-ematea Eventbrite webgunearen bidez egin beharra dago. ◀

Hurrengo ekintzak

Maiatzak 29, barikua

17:30 Historiaurreko harri-zizelkatzea, gaztelaniaz, Iñaki Libanoren eskutik.

21:00 Izan Gaua, ele bitan, Gonzalo Ruizegaz. Autobusa egongo da Leioatik Akarlan dera igotzeko.

Ekainak 2 eta 4

18:00 Zoriontsu izaten ikasiz ikasketa-prozesua, gaztelaniaz, Imanol Gonzalez Vitutia gidari.

Ekainak 5, barikua

17:30 Sua egiten ikastea, eta Paleolitiko margogintza, gaztelaniaz, Iñaki Libanogaz.

info+: herrigune.org

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

LUBERRI Basolanak S.L. LOREZAINZA

- Soropila Ezartzea: lurzoru prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsadako organitze lanak eta erate lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea: Moztea, ureztatzea, organitzea, egurzteia, aratzea eta drainatzea, berrikatzea, soropil goiztak eta belar goiztoak tratatzea.
- Inausketak: Hazteko, mantentzeko, berriketako, zifariako apaingarriak inauszea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Ape ibaiertza 28A beheko solairua B12 lokala (ERANDIO) Mug: 629 41 18 38 · Tf: 94 467 17 13 · Faxa: 94 467 42 41 lubem@euskalnet.net · www.lubem.biz

Sopela

Kurtziolagun-txartela, abian!

Kurtzio kultur etxeko leialtasuna bultzatzeko asmoz, Kurtziolagun-txartela martxan ipiniko du Udaleko Kultur Sailak. Horregaz, herritarrek hainbat deskontu lortuko dituzte.



Kurtziolagunek lehentasuna izango dute sarrerak lortzeko orduan.

Herriko kultur programazioa eta Kurtzio kultur etxeko ikuskizunekiko leialtasuna sustatzeko helburuagaz, Sopelako Udaleko Kultur Sailak ekainean egitasmo berria abiatuko du: Kurtziolagun-txartela. Udalak azaldu duenez, asmoa da Kurtzio «eskualdeko kultur erreferente» bihurtzea, ahalik eta ikusle gehien erakarrit.

Txartela eskuratzen duten lagunek abantailak izango dituzte Kurtzion antolatzen diren kultur jardueretan. Garrantzitsuena honakoa izango da: urtean ordainpeko bost ikuskizun ikusteko aukera izango dute «kurtziolagunek», sarrerak ordaindu barik. Horrez gainera, gonbidapenak lortzeko lehentasuna izango dute gainontzeko ikuskizunetarako. Izan ere, azken hilabeteetan gero eta ohikoagoa da Kurtzioko areto nagusia leporai-

no beteta ikustea, eta gonbidapenak agortzea. Azkenik, txartela duten herritarrek zuzen-zuzenean izango dute Kurtzioko kultur agendaren berri, euren e-postan edo sakelako telefonoan.

Txartelaren prezioa hamar eurokoa izango da sopoloztarrentzat, eta 15 eurokoa, udalerrian erroldatuta ez dauden herritarrentzat. Oinarritzko diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenek, oster, txartela doan eskuratzeko aukera izango dute. Txartelaren iraupena urte osokoa izango da, luzatzeko aukeragaz. Lehenengo urtean, txartela ekainean abiatuko denez, «kurtziolagun» izatea %50 merkeagoa izango da.

Txartela eskuratzeko epea ekainaren 1ean zabalduko da, eta Kurtzion, udaletxean edo Sopelaren bulegoan (Larrabasterran) egin ahal izango da. ◀

Info+: www.sopela.eus

Berdintasun-araudia atzera bota dute

Maiatzaren 19ko Udalbatzak atzera bota zituen berriro ere Sopelako Udal Gobernuak aurkeztutako proposamen gehienak. Oposizio alderdiek euren botoak elkartu zituzten, besteak beste, Berdintasun Araudia atzera botatzeko, EH Bilduko Udal Gobernuak osoko bilkuran aurkeztu zuena. Sonia Huidobro gobernuko zinegotziak azaldu zuen legez, araudiaren helburua «emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean pauso bat harago ematea» zen, ondorengoak bideratuz: genero-ikuspegia kontratazioetan txertatuz, udaletxean eraso kontrako protokolo

bat sortuz, diru-laguntzak emateko baldintzak zehaztuz... Udal Gobernuak udal teknikariakaz aurretik landutako testua izan da osoko bilkuran proposatutakoa.

EAJ, PSE eta PPko ordezkariak, baina, kritiko agertu ziren araudiaren hainbat puntugaz, barbarako: araudiaren arabera, ezinbestekoa zen Sopelako Udala Uribe Kostako Mankomunitatetik irtetea. Udal Gobernuaren eta teknikariaren arabera, Berdintasun Zerbitzuan teknikari bakarra dagoe-lako zazpi herrirentzat, eta horrek ez du bermatzen zerbitzua «ganoraz» eskaintzea. ◀

Berango

Arrakastatsua izan da Moreagako Erdi Aroko azoka

Iraganera begira ipini eta Erdi Arora larte egin zuen salto Berangok hila-ren 15etik 17ra. Moreaga parkeak garai-ko 85 saltoki hartu zituen, eta produktu bereziak saltzeaz gainera, kontzertuak eta umeentzako hainbat tailer egon ziren bertaratutako en gozameneko. Azoka horretan, 250 pertsonak parte hartu zuten, aktoreen taldeak eta Erdi Aroko musika eta musika zelta batzen dituen taldea barne. Jende ugari hurre-ratu zen bertara; arrakasta hain handia izan zen, ezen domekan hainbat saltzaile salgai barik lotu baitziren. Lortutako emaitza ikusita, hurrengo urtean errepikatzea aurreikusi dute



Jende ugari hurbildu zen azokara.

antolatzaileek. Hala, Berango normaltasunera bueltatu bada ere, urtebete barru zaldunen garaira itzultzeko aukera izango dugu berriro ere. ◀

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritzu z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

ALURREN
GOSARIAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA, Flota Kalea 1 (Udaleko atzean)

GURE ETXEA
taberna
HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!
Bentatu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA



Hartzaindegitik batxilergora
arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus



Lemoiz



Alberto Letona kazetariak idatzi du liburua; bere hurrengo erronka ingelesera itzultzea da, Erresuma Batuan argitaratu ahal izateko.

«Britaniarrek dikotomia handia dute sexuan»

Alberto Letona kazetari lemoiztarrek *Hijos e hijas de la Gran Bretaña* liburua kaleratu du. Horretan, Britainia Handiko gizartea aztertzen du, hemengo ikuspegitik eta umore puntu batez. Liburuan Iban Gaztanbideren ilustrazioek testuari laguntzen diote.

IKER RINCON MORENO ▶

Alberto Letona lemoiztarra hainbat urtez ibili da Erresuma Batuan kazetari-lanetan. Hala, Letonak oso ondo ezagutzen du Britainia Handiko gizartea, eta liburua idatzi du hori islatzeko. Hainbat lekutan egin ditu aurkezpenak, eta oso kritika onak jaso ditu daborduko.

Hijos e hijas de la Gran Bretaña liburua idatzi berri duzu. Zertan datza, zer

aurkituko du irakurleak lan horretan?

Bertan, nolabait, Britainia Handiko jendearen inguruan egiten dut bera, hemengo ikuspegitik. Ni Euskal Herrian jaio nintzen, hemen bizi naiz, baina Britainia Handian nire bizitzaren parte handi bat eman dut. Nolabait, euren idiosinkrasia erretratatu dut; hau da, euren nortasuna, gastronomia, sexua, historia, identitatea eta horrelako gauzak jorratzen ditut liburuan. Behintzat gauza horiek aztertzen saiatzen naiz, baina umorezko hariagaz. Esan genezake umorea dela lan osoaren gaia.

Umorez egindako lana dela diozu, zer dela eta?

Sexuan eta gastronomian izugarriko dikotomia dute britaniarrek. Alde batetik, neska-mutil viktoriarrek ikus ditzakezu aspaldiko etika sexual batez; bestetik, Magalufera (Mallorca) eta halako tokietara doazen gazteak, eta exhibizionismoa ikus daiteke. Polarizazio handiak daude, baina, seguruenik, gizarte askotan gertatzen da hori. Gastronomian ere, guk euskaldunok, batez ere, beti esan dugu oso sukalde txarra dutela; baina, seguruenik, hara joandako askok ez dutela fa-

milia-etxe batean jan. Edateko ohitura ere badaukate; baita guk ere. Baina gure kasuan sozialki edan dugu normalean, eta euren, batzuetan, baka-rik ateratzen dira mozkoztara; eta ez dago inolako bekatunik, ezta eragozpenik ere horretan.

Zeintzuk dira ingelesak, galesak, eskoziarren eta ipar-irlandarren arteko aldeak?

Idazle batek esaten zuen bezala, askotxo dira, eta nik ez ditut denak ezagutzen. Nolabaiteko klixea badago; identitateak ikuspegi moderno batekin ikusten ditut. Eskoziarrek bere bidea jorratzeko prest daude, baina hori ez da oraingo kontu bat; nire ustean, Thatcherren garaian jorratzen hasi ziren hori. Eskoziarrek beti izan dute portaera humanistagoa, ingelesek baino. Ingelesak, oster, finantza-mundua ordezkatu dute; galesak, berriz, apurka-apurka aurrera egiten hasi dira, eta euren autonomia sendotzen ari dira.

Espainiar Estatuan aurkeztu duzu daborduko, zelako harrera izan du?

Oso ona. Egia esan, liburuak ez dauka halako anbizio literario handirik, baina egindako kritikak oso onak izan dira, Britainia Handian izan ezik. Baina hori ez zait batere ardura, badakit *tabloids* delako egunkariak zer nolakoak diren...

Berbarako, *The Times* egunkari ingelesak artikulu bat idatzi zuen, non zure liburua kritikatu baitzuen... Zelan hartu zenuen hori?

Nire ustez, oso lanbide maltzurra dugu, eta, azken finean, titularrak saldu behar dira. Kazetari horrek titular kargatu bat jarri zuen, sentsazionalista. Baina horrek ez du inondik inora ordezkatzeko nire liburuaren espiritua. Berak horrela idatzi zuen, eta nik ez daukat inolako problemarik. Seguruenik, horrela izanda eta gizakia ezagututa, ale gehiago salduko dira. ◀

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

txakoli mota ganeTX
txakolina

Isoa Urbe errepidea 34 (Akatanda Parke) Galdakos Etxandea
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagana.com

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fritu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Uribe Kosta



2013an hasi ziren eskualdeko azoka hori egiten.

Bigarren eskuko 10. azoka, Barrikan

Oraingoan, trukea ere sustatu gura dute. Azoka udaletxearen ondoko aparkalekuan izango da.

Ekainaren 20an egingo dute Barrikan bigarren eskuko objektuen Uribe Kostako hamargarren azoka, udaletxearen ondoko parkingean. 2013ko irailaren 27an egin zuten eskualdean mota horretako lehenengo merkatua. Harrezkero, urtetik urtera, azoka hartzen duen herria aldatzen dute. Antolatzaileek diotenez, «batzuentzat daborduko baliagarriak ez diren objektuak baliagarriak izan daitezke beste batzuentzat; objektuak berrerabiltzeko aukera ematen du

merkatuak». Era berean, objektuak berrerabiliz, ez dira botatzen zaborrera, eta horrela «bigarren bizitza ematen zaie». 2013tik hona bederatzita merkatu egin dira. Izandako esperientzia kontuan hartuta, trukea ere sustatu nahi dute antolatzaileek, bigarren eskuko objektuak saltzeaz gainera. Horretarako, mahai bakoitzeko objektuak hiru ataletan bana ditzaten eskatu dute: salgai daudenak, opari ematen direnak, eta trukean eman daitezkeenak. Azoka horretan parte hartu gura dutenek ekainaren 5era arte izango dute izena emateko aukera. Postuak esleitzeko, lehentasuna izango dute Uribe Kostako Mankomunitateko udalerritan erroldatuta daudenek. ◀

harremanetarako: ekogune@uribekosta.org

Urduliz

Udal politiketan parte-hartzea bultzatzeko taldea sortu dute

TAOaren ezarpenagaz eta ospitalearen eraikuntzagaz zerikusia zuten gaiakaz kezkatuta, hainbat herritar batzen hasi ziren, duela urtebete inguru. Bilera informal batzuen ondoren, ohartu ziren haien benetako kezka «orokorrak» zela, «informazio falta ikaragarria genuela, eta geneukan informazioa proiektuak burututakoan heltzen zitzaigula ikusten genuelako». Hori horrela, «alderdi politikoetatik aldentuta», lanean hasi ziren Udalaren eta herriaren arteko harremana «irekiagoa, zuzenagoa eta gardengoa» izateko. Hala, Urduliz Rurala taldea osatu zuten. Datozen urteetan,

«aldaketa garrantzitsu asko» izango ditu euren udalerriak. Aldaketa horien aurrean, uste dute «ezinbestekoa» dela herritarren iritzia kontuan izatea. Iaztik hona, herritarrakaz bildu dira, euren iritzia jasotzeko. Era berean, alkateagaz berba egin zuten parte-hartzearen inguruan, eta taldearen ondorioak ere aurkeztu zizkioten; «oso interesgarria iruditu zitzaion, eta informazioa aztertu ostean, erantzun bat emango zigula ziurtatu zigun». Oraindik ere erantzunaren zain daude. Hilaren 30ean bilera irekia egingo dute 11:30ean, Inola elkartearen egoitzan. ◀

info+: rurduliz@gmail.com / urdulizenbizi.com

Gorliz

Elkarteentzako diru-laguntzen programa, zabalik

Udalerrian intereseko eremu eta gaien inguruan lan egiten duten elkarteak eta erakundeak laguntzeko, hainbat diru-laguntza ematea aurreikusten dute Udal aurrekontuek, arduradunek jakinarazi dutenez. Hala, laguntza horiekaz, elkarteek eta erakundeek aurreikusita dituzten jarduerak egiteko aukera izango dute. Tokiko Gobernu Batzarrak apirilaren 30ean onartu zuen diru-laguntzen programa hori, eta baita deialdia ere, 2015erako diru-laguntza arautuak emateko. Hala, programa zelakoa den jakin gura duenak eskuragarri du informazioa Herritarren Arretarako Zerbitzuan edo Udalaren webgunean.

Interesdunek ekainaren 13a baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskabideak. Hala ere, programak hala zehazten dituen laguntza batzuek bes-telako epeak izan ditzakete. ◀

info +: www.gorliz.eu

Ume txikienezko udalekuen eskaintza, zabalik

Udalerriko 3 eta 5 urte bitarteko umeek jolasean eta tailerretan gozatzeko aukera izango dute, ekainaren 29tik uztailearen 24ra arte. Izan ere, Gorlizko Udalak Udan Jolasean udalekuak antolatuko ditu data horietan. 2010eko urtarrilaren 1etik eta 2012ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako umei zuzenduta dago eskaintza; eta interesatuek hilaren 29ra arte izango dute udalekuetan izena emateko aukera, Gorlizko kultur etxean. Jarduerak 10:30etik 13:30era izango dira, Sertutxenan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, behar duten familientzat haurtzaindegi eta ludoteka zerbitzua egongo da, 09:00etatik aurrera. Parte-hartzaile bakoitzeko prezioa 50 eurokoa da; familia ugariak, berriz, bakoitzeko 30 euro ordaindu beharko dituzte; eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenek, 15 euro. ◀

info +: www.gorliz.eu

Plentzia



Zoladura aldatzen hasi dira, material hobeto batez.

Plentziako portua eraberritzen hasi dira, zoladura berriakaz

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak lanak abiatu ditu Plentziako portuko atrakalekuko zoladura zaharberritzeko: kalitate handiko material sintetikoak erabiltzen hasi dira, iraupen luzeak, UVA izpiakaz aldaezina, eta garbitzeko gaur egungo bako bako errazagoa izango dena, jakinarazi dutenez.

Lan horiekaz, oraingo egurrezko zoladura kenduko dute, eta ondoren, aluminiozko profil batzuekaz ordezkatzeko dute egurrezko estruktura,

zoladura berria finkatzeko. Hasiera batean, itxura txarrena dutenakaz hasiko dira: 1., 2., 3. eta 5.a; bigarren fase batean, 4. eta 6. zenbakikoak ordezkatzeko dituzte.

Astilleros Amiliba enpresari esleitu dizkiote aipatutako lanak, 56.686,90 euroan, BEZ barne. Bi hilabete eta erdiko epea izango dute lan horiek guztiak egiteko. Hala ere, muntaketa hasi dutenez gero, lan guztiak amaitzeko beste hilabete beharko dutela aurreikusi dute arduradunek. ◀

hirukaganda

Uribe Kostako asfekaria

2015eko maiatzaren 28tik ekainaren 3ra arte



hiruka.eus



URIBE KOSTA

Jolasekin, euskararen erabilera bultzatzen

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak prest dauka Euskaraz Olgetan egitasmoaren ekaineko egitaraua. Hala, hilaren lehenengo astean, *Pi-lo-pilo korapilo!* ikuskizuna eskainiko dute Puskari eta Mariski pailazoek. Hurrengo asteetako dagoakenez, zirku tailerra, talde-jolasak eta sukaldaritza tailerra edukiko dituzte txikiak. Astehenero, Lemoizko Urizarreko es-

kolan egin ohi dituzte neska-mutilen artean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak, 17:00etatik 19:00etara. Eguenero, ostera, Plentziako Astilleri plazan izaten da hitzordua, 17:30etik 19:30era; Urdulizko Antsoekoa plazan, barrikuro, 17:30etik 19:30era; Gorlizko Ibarreta plazan, zapataro, 12:00etatik 14:00etara; eta Sopelan, domekero, 12:00etatik 14:00etara, Zi-

pirine eta Jauregizar plaza tartekatuz. (Hileko lehenengo domeka bietan, batean; hurrengo bietan, bestean).

Oraindino ez da amaitu maiatzeko egitaraua. Munduko kirolak eta kirol-jolasak egingo dituzte hil amaieran, herrietan horietan. Jolasa oinarritzat hartuta, familiaritatean euskararen erabilera sustatzeko asmoa dauka Euskaraz Olgetan ekimenak. ▶

2015/05/27 - ordua: 18:00 / 19:30

Haize-instrumentuen saioa

Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Erandioko Musika Eskolaren ekimenez. Gombidapena beharrezkoa da (kultur etxeko idazkaritzan jaso daiteke).

2015/05/27 - ordua: 19:30

Erretratugintza tailerra, atari zabalean

Astrabuduko anbulatorio zaharra | Erandio
Takolos irratiklubaren ekimenez. Eurria bada, barruan izango da. Doan.

2015/05/28 - 2015/05/29 - ordua: 19:00

Musika eskolako entzunaldia

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Sarrera doan.

2015/05/28 - ordua: 19:30

Unai Elorriaga idazle

algotarraren berbaldia
Villamonteko kultur etxea | Getxo
Uribe Kostako Irakurle Txokoaren (UKITX) ekimenez. *Iazko hezurrak* liburuz berba egingo du Elorriagak. Euskaraz. Sarrera doan.

2015/05/28 - ordua: 20:00

Los fastuosos de la Ribera rock taldea, kontzertuan

Billaren taberna | Getxo
Getxo Zuzenean programazioko denboraldiaren amaiera. Sarrera doan.

2015/05/29 - ordua: 17:30

Parkean Olgetan

Neguriko Gernika parkea | Getxo
Sendi proiektuaren ekimenez. Jolasak egongo dira ume zehin gurasoentzat. Parte-hartzea libre.

2015/05/29 - ordua: 20:00

Relatos salvajes filmaren proiektzioa eta foroa

Andres Isasi musika eskola | Getxo
Zine-klubaren denboraldiaren amaiera. 16 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,90 euro.

2015/05/29 - ordua: 21:00

Abesbatzen kontzertua

Andra Mari eliza | Barrika
Sestaoko Orfeoak, Bilbo Argia zortzikoteak eta Barrikako Alita Gotzon abesbatzak kantatuko dute. Sarrera doan.

2015/05/30 - ordua: 11:30 - 13:30

Tai ji eta chikung eskolak

Eskoletako plaza | Getxo
Getxoakibatuko egitasmoaren barruan. Lamiak

2015/05/30 - ordua: 19:00

Lau eskuko piano kontzertua

Josu Murueta kultur etxea | Erandio
Erandioko Musika Eskolaren ekimenez. Koruko Eras eta Paula Torrontegi piano-jotzaileek joko dute. Gombidapena beharrezkoa da (kultur etxeko idazkaritzan jaso daiteke).

2015/05/31 - ordua: 10:00 - 15:00

XXIII. Nekazaritza Azoka

Irailaren 23a plaza | Erandio
Salmenta postuez gainera, animalia exotikoak, herri-kirolak, ardiei ilea mozteak, uztagileak, txorizo-dastaketa eta txerria buruntzian egongo dira. Doan.

2015/05/31 - ordua: 11:30

Bizkaiko Nazioarteko Irekia pala-txapelketa

Udal pilotalekua | Sopela
Sarrera: 3,00 euro (16 urterera arte doan).

2015/05/31 - ordua: 13:00

Erandioko Musika Bandaren udaberriko kontzertua

Metro ondoko zabalgunea | Erandio
Doan.

2015/06/01 - 2015/06/04 - ordua: 14:30 - 16:30

Enpresa bateko marketin egitasmoa egiteko ikastaroa

Getxo Elkartegia | Getxo
Getxolan zerbitzuak antolatuta. Zortzi orduko iraupena edukiko du. Gaztelaniaz. Informazio gehiago: getxolan@getxo.eus.

2015/06/01 - 2015/06/06 - ordua: egun osoan

Patchwork erakusketa

Algotarko kultur etxea | Getxo
Kultur etxeko tailerreko ikasleak. Ordutegia ondokoa izango da: asteleheneetik barrikura, 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:30era. Eta zapatuan goizez bakarrik, 10:00etatik 13:00etara.

2015/06/02 - ordua: 10:00

Ibilaldia helduentzat eta adinekoentzat

Telletexe plaza | Getxo
Algotarko Ixartu Taldeak eta Getxo Kirolak udal erakundeak antolatuta. Zortzi kilometroko ibilbidea egingo dute udalerrian barrena. Parte-hartzea libre.

2015/06/03 - ordua: 09:30 - 14:00

Bileren dinamizazio ikastaroa

Getxo Elkartegia | Getxo
Getxolan zerbitzuak antolatuta: Balzar eragin-korrikak egiteko emango dituzte ikastaroak. Jaso behar duzue emango dituzte

Oroimena hobetzeko hainbat gomendio

Zainduz programaren barruan, maia-tzaren 29an, barikua, *Recomendaciones para mejorar la memoria* izeneko berbaldia eskainiko du Janire Roca Psikologian lizentziatuak. Hitzordua 18:00etan jarri dute, nagusien etxean. ◀

Eskola-umeak oholtzan, antzezlari

Ikasturte osoan, bertoko 12 ikastetxek parte hartu dute antzerki tailerretan. Martxoaren 31n, domeka, ikasitakoa erakusteko aukera izango dute Areetako Andres Isasi musika-eskolan, goizean zein arrastian. ◀

Antzerki-jaialdiak agur esango digu

Antzerki Amateurraren Jaialdiaren azkena hartuko du hilaren 31n, domeka, Berango Antzokiak. Iker Ibañezen *Las estrellas también brillan en otoño* lana eskainiko du bertako Txirlora-Academia taldeak, 19:00etan. Sarrera: 3 euro. ◀

2015/05/30 - ordua: 18:00

Kirol-jarduerak

Tellexe eta Santa Eugenia plazak | Getxo
Athletic eta Bartzelona arteko Espainiako Futbol Kopako finala dela eta, Getxoakibatu egitasmoak eta bertoko kirol-taldeen antolatuta, Partida ikusteko pantailak ere ipiniko dituzte. Parte-hartzea libre.

2015/06/03 - ordua: 19:30

La lengua de los secretos nobelaren aurkezpena

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Martin Abrisqueta idazlea eta Roberto Moso musikaria egongo dira ekitaldian. Gaztelaniaz. Sarrera doan.

ERANDIO

Astrabuduan film bana edukiko dute umeek eta nagusiek, hilaren 30ean

Aste akabuan zineaz gozatzeko aukera edukiko dute umeek zein nagusiago direnek, Josu Murueta kultur etxean. Zapatuan, hilak 30, Lupin lapur dotorearen abenturak ikusgai egongo dira 17:00etatik aurrera, *El castillo de Carrawler* pelikula proiektatuko dute, 12 urtetik gorakoentzat, 20:00etan. Aldizkarietako *paparazzi*-en parekoak dira *nightcrawler* (gaueko zelatariak) izenekoak; larraldi-irritiak eskaneatzen dituzte delituak gertatu diren lekuetara berehala heltzeko. Film bietarako sarrerak 2 euroan egongo dira. ◀



URDULIZ

Asterixen abenturak, ikusgai zapatuan

Maiatzaren 30ean, zapatua, *Asterix: la residencia de los dioses* animaziozko filma egongo da ikusgai, Urdulizko kultur etxean. Hitzordua 18:00etan jarri dute, eta sarrera 3,50 euroan egongo da. Isotioari dagokionez, Julio Cesar, desesperatuta dago erromatarrek ez direlako gai galiarren herrixka menperatzeko. Hala, taktika aldatzea erabakiko du. Galiarrak sendutzeko asmoz, enperadoreak luxuzko egoitza bat eraikitzea aginduko du herrixkaren aldamenean: Jainkoen Egoitza. ◀



Zero Zabor Eguna izango da Sopelan

Goizean, sopoloztarrek edukiontzietara zer zabor botatzen duten aztertuko dute ikasle eta herritarrek. Arrastian, birziklatzeagaz lotutako tailerra egingo dute: hondakinak erabiliz, musika-tresnak sortuko dituzte gazteek. Amaitzeko, Spora enpresak egindako txostena aurkeztuko dute. ◀

Noiz: Maiatzak 29, barikua
Ordua: 10:00etatik aurrera
Non: Udaletxeko plaza
Antolatzailea: Sopolako Hondakinen Kontseilua (SHK)



1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoa honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Antolatzaileek espero dute 150.000 lagun inguru batzea Bizkaiko ikastolen jaietan. © IBILALDIA ELKARTEA



nea Erripa izango da, eta han joko du Espaloian taldeak, eta dantza egingo dute Gaztedi eta Beti Jai Alai taldeek. Aurtengo berrikuntzen artean, Bizkaiko Ikastolen arteko Erronka-proba jokatuko da Ibilaldiaren egunean. Lau neskek eta lau mutilek osatutako hamabi taldek parte hartuko dute. Horrez gainera, ikastoletako musika-taldeek Bilborock aretoan jotzeko aukera edukiko dute egun horretan.

Garraioa

Metro Bilbaok eta Bizkaiko Garraio Partzuergoak ere babesa eman gura izan diote Ibilaldiari. Erakunde biek emandako laguntzak bosgarren guzuean edukiko du eragina, bertan baitago Metro Bilbaoren eraikin nagusia. Bestalde, konboien barruan, ateen gaineko sare-mapetan jaitik gertuen dauden geltokiak adieraziko dituzten seinaleak jarriko dituzte: Moyua, Abando eta Zazpi Kaleetako geltokiak Ibilaldiaren logotipoa izango dute. Bidaien maiztasunari dagokienez, 09:30etik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara trenak 6 minutu eta 40 segundoan behin aterako dira Bidezabaletik. Plentziatik, berriz, 10 minututik 10 minutura aterako da trenak. Gogoratu, autobusez egin behar dela Plentzia eta Sopela arteko zatia, Urdulizko trenbide-pasagunea lurperatzeko obrak egiten da biltzalako. Orduetegi berriro helduta, 14:30etik 17:00etara, 10 eta 20 minutuko izango da maiztasuna, hurrenez hurren, Bidezabal eta Plentziatik. ◀

Ibilaldia, Bilbon

Harrobia Lanbide Heziketako zentroak antolatu du Bizkaiko ikastolen aldeko jaiaren 37. edizioa. Zazpi kilometroko ibilbidean, bost gune egongo dira.

Domeka honetan, maiatzak 31, Bilbok hartuko du Bizkaiko ikastolen aldeko jai handia. «Harro ibili» goiburuean, ehunaka euskaltzale batuko dira hirian, egun osoko egitarauaz gozatzeko asmoz. Harrobia Lanbide Heziketako ikastola da aurtengo antolatzailea, eta bost gune edukiko ditu Ibilaldiak; lehenengoa ikastolan bertan, San Frantzisko auzoko Harro-

bia plazan. Ibilbideak zazpi kilometro izango ditu, eta Bilboko alde zaharra eta garaikidea lotuko ditu.

Gunez gune

Lehenengo guneak zati bi ditu, ikastolan bertan eta Mariaren Bihotza plazan. Besteak beste, Urtz eta Itziarren Semeak taldeek joko dute ikastolako gunean. Mariaren Bihotzean, ostera, auzoko taldeak izango dira protagonis-

ta, berbarako, Anaika Ara musika taldea. Bigarren gunea Miribillan egongo da, eta hantxe joko du aurtengo Ibilaldiko kanta Zea Mays talde bilbotarrak. Areatzan jarriko dute hirugarren gunea. Bertan joko dute Bilboko Udal Musika Bandak, Korrontzi taldeak, Trikiziok; Eusko Labeldun jatekoak dastatzeko lekua egongo da, rokodromoa, umeentzako puzgarriak eta abar ere egongo dira. Bestalde, Guggenheimen lekutuko dute laugarren gunea, umeak izango dira nagusi. Irrien Lagunak klubak hainbat jarduera antolatu ditu bertan, eta umeentzako erromeria ere egongo da arrastian. Azkeneko gu-

Autobusak, eskolen eta ikastolen jaietarako

Ekainaren 7an Elgoibarren ospatuko dute Euskal Eskola Publikoaren jaiak, Gustatzen jata, gustatzen jaku goiburuagaz. Astebe-beranduago, hilaren 14an, Araba Euskaraz jaiak Gasteizera helduko da. Oraingo honetan Oiongo San Bizente Ikastolak antolatuko du, Piztu euskara izenburuagaz. Ekitaldi bietara joateko autobusak antolatu dituzte Gornitz eta Plentziako udalek. Egun bietan berberak izango dira irteteko zein itzultzeko orduak, eta joan-etorriaren prezioa. Autobusa 09:00etan abiatuko da Gornitzko Euskadiko Kutxatik; plentziarrak ordu laurden beranduago jasoko ditu Charter supermerkatuan. 20:00ak

aldera egongo dira bueltan. Prezioei dagokienez, 5 euro ordaindu beharko dituzte udalerritik bietako batean errolatutakoek, eta 8 euro, gainerakoek. Ekainaren 3ra arte egongo da Euskal Eskola Publikoaren jaiak joateko autobusean izena emateko epea, eta hilaren 10era arte Araba Euskaraz jaietako garraioan apuntatzeko, Gornitz eta Plentziako kultur etxeetan.

Berangotik ere Gasteizera joateko autobusa antolatu dute, prezio berberetan. Goizeko 09:30ean abiatuko dira berangoztarrak, Moreaga parketik. Izena eman gura dutenek Berangoeta edo Santa Ana kultur etxera joan beharko dute ekainaren 1etik 10era. ◀

Uribekostar bi, Bizkaiko eskolarteko finalean

Ekainaren 6an, zapatua, Igorreko Kiñu gaztetxean ospatuko da Bizkaiko Bertso Eskolen eguna, eta, lurraldeko Eskolarteko Txapelketaren finala jokatuko dute, bide batez, bertan. Maiatzaren 22an erabaki zen nork egingo zuen bertsoaren Igorren. Hala, Igorreko finaleko zortzikotearen barruan, ordezkari bi edukiko ditu Uribe Kostak: Paule Loizaga Legarra sopoloztarra eta Unai Mendiburu Valor algortarra.

Lau kanporaketa eduki ditu txapelketak. Guztira, 32 gaztetxok parte hartu dute, maiatzaren 18tik eta 22ra artean egindako kanporaketetan. Horietatik 8 sailkatu dira Bizkaiko finalerako. Horrez gainera, Euskal Herriko Eskolarteko fi-

nalera sailkatuko dira Igorreko finalean puntu gehien batzen dituzten bi bertsolariak. Euskal Herriko finala ekainaren 27an izango da Orion. ◀

Bizkaiko Bertso Eskolen Eguna

Ekainak 6, zapatua

Igorreko Kiñu gaztetxea.

10:00 Bertso idatzien finala.

11:00 Bat-bateko sariaketaren finala.

13:30 Sari-banaketa.

14:30 Bazkaria.

16:30 Bertso-eskolen tartea.

Eta ondoren, erromeria!

«Dirua edukita, berehala altxatuko genuke Tanzaniako ikastetxea»

Born to Learn ekimenak egun osoko jai solidarioa antolatuko du ekainaren 20an, Sopelan.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Tanzaniako Mvuleni herrian, Kilimanjaro eskualdean, eskolara joateko aukerarik ez daukaten umeentzako ikastetxea eraikitzen dabil Born to Learn egitasmoa. Asier Urrutikoetxea hango taldeko kideak azaldu digunez, abenduan beste leku batera eroan gura dituzte orain alokatutako geletan ikasten duten neska-mutilak.

Ekainaren 20rako jai solidarioa antolatu duzue Sopelan. Zer asmogaz?

Born to Learn egitasmoa 2011ko urtarrilean jarri genuen martxan Sam Peñalver madrildarrak eta biok, Tanzanian egonda, bertako haur askok eskolara joateko aukerarik ez zeukatela konturatu ginenean. Urte batzuk daromatxagu ume horiei heziketa ematen, alokatutako lau ikasgelatan. Kontua da ikastetxe ofiziala izateko derrigorrezkoa dela eraikin propioa edukitzea. Eraikinik ez daukagunez, gure ikasleak ezin dira aurkeztu Tanzaniako azterketa nazionaletara. Hori dela eta, dirua batzen gabiltza ikastetxea altxatzeko. Iaz ere egin genuen jai.

Orain arteko bidea ere ez da erraza izan, ezta?

Hala da. Hasieratik dirua izan da proiektuaren zama. Berbarako, guk ez genuen swahiliz egiten hasieran, eta umeekin ulertzeko modurik ez zegoen. Horregatik kontratatu genituen berta-



Moshi hiritik ordu erdira dago Asier Urrutikoetxeak orain dela lau urte ezagutu zuen Mvuleni herria.

ko andereño bi, lagunek jarritako diru apurragaz. Gero, konturatu ginen neska-mutil gehienek egunean behin baino ez zutela jaten, eta sukaldari bat hartu behar izan genuen.

Gastu gehiago ziren...

Konturatu barik, lagunak laguntzak urritzen joan ziren, eta guk hileror daindu behar genituen soldatak eta janariaren gastua. Zozketez, azokatxoez eta jai solidarioez bizi ginen. Zerbait gehiago egin behar genuen. Hostal bat zabaltzea bururatu zitzaigun.

Karibu deitu zenioten hostalari.

Bai; proiektua mantentzeko eta hazteko da Karibu hostalarekin irabazitako dena. Leku nahiko turistikoa de-

nez, hainbat jendek ostatua hartzen du bertan. Boluntarioek ere gela ordaintzen dute; merkeago, noski. Gaur egun, sukaldari bat eta lau irakasle dauzkagu, eta 70 ume proiektuan, eta

3.500 euroan. Denon artean, dirua batu eta lurrak erosi genituen. Gal-dakaoko Udalak, berriz, subentzioa eman zigun, eta ur-edangarriko putzua egin genuen, horri esker.

Orain arte laguntza gehiago jaso dituzue? Zeintzuk?

Ezin ditugu ahaztu Jiorings enpresa, Zurbaranbarriko eskola, Bartzelonako suhiltzaileak, eta ekintza solidarioak prestatu dituzten lagun asko. Etortzen diren boluntarioak ere saiitzen dira dirua batzen, euren etxeetara bueltatzen direnean. Talde polit bat egin dugu, eta hortxe gabiltza apurka-apurka eraikitzen. Lanak ondo joatekotan, abenduan aldatu gura genituzke umeak eraikin berrira. ◀

“Boluntarioak dirua batzen saiitzen dira etxera bueltatzean”

beste 40 ume, bertako eskola publiko eta pribatuetan, babesleen bitartez.

Eta ikastetxerako lurrak?

Crowdfunding kanpaina martxan jarri, eta akre biko orube bat ikusi genuen,



Gramofono ixila

LANDER UNANUE MENDIGUREN
Abarkatxo

Beranduegi denean, ezin atzera egin

Zergatik ohartzen gara ingurukoaren benetako balioaz, behin galdu eta gero?» Pentsatu dut gaur goizean. Kafea daukat aurrean eta normalean konturatu gabe edaten dudana, gaur, bereziki goxoa dagoela irudituko zait. Agian ondoren gertatuko zaidanaren sari modura. Egun kaotikoa izan da: Lanetik bota, maitaleak utzi, etxeko loroa hil eta hanka bat ere apurtu dut. Bakoitza zenbateraino maite izan dudana ohartu naiz orduan. Ospitalean, amama etorri zait bisitan eta esan diot: —«Orain, dana galdu dudala, ohartzen naiz ingurukoaren benetako balioaz!» Horrela erantzun dit berak: —«Ez duzu dana galdu oraindik, baina, ez nuke euskararen balioa jakin nahi!».

hiruka

Urbe Kostako astekaria

Zure taberna, jatetxea edota komertzioa
hemen agertzea gura baduzu
ipini zaitez gugaz harremanetan:

944 911 337
publi@hiruka.eus

www.hiruka.eus





Gure esku

ZELAI
NIKOLAS EZKURDIA
Legelaria

Sentitzea... Gure esku dago

Zer dago gure esku? Bai, galdera horrekin tematuta nabil, lagunok.

Euskal Herrian belau-naldiz belaunaldi gure herriarekiko, gure hizkuntzarekiko, gure bizitzeko erarekiko eta gure baloreekiko errespetua eta maitasuna pasa diogu elkarri.

Maitasuna sentitzea da; irribarrera da..., elkarrekin gozatzea...; harrotasuna... Gauzak ondo egiten ari garen sentimendua da.

Balore positibo horiekin batera, ordea, gure herrian badira beste sentipen batzuk ere –munduko gainontzeko tokietan bezala, baina bereziki galtzaileen historia bizi dugun tokietakoetan nabarmenagoak direnak: beldurra, gorrotoa, bekaizkeria, inpatientzia, presa, elkarrekiko mesfidantza...; eta horren adierazleak: negarra, haserrea, urduritasuna, harrokeria, urruntasuna...

Bizitza horrela da, han eta hemen; hemen eta han. Bai, baina aurtun Lorea Agirrek ederki adierazi digunez Korrikaren lekukoak bi astez gorde eta eskuz esku elkarri pasa diogun mezuan, auzia ez da horrenbeste izatea edo ez izatea. Kontua ekitea da, egiten duguna baikara. Eta ekiteko orduan, bideari nola ekiten diogun guztiz baldintzatzen du emaitza.

Horregatik, kontrako indar eta sentipen horiek guztiak gaintitzea gure esku dagoela sentitzen dut, eta horretarako ahalegin berezia egin behar dugu gure eguneroko jardueran elkarri entzuteko, arinegi ez asalatzeko, pazientziaz jokatzeko, elkarrekin gozatzeko...; eta era berean... norberaren ardurak behar bezala betetzen saiatzeko, erosokeria alde batera uzteko eta aurrean ditugun errokei inteligentziaz eta ausardiarekin heltzeko, gauzak ondo egiten ari garela elkarrekin partekatuzko, zaitasunak elkarrekin gaintitzen saiatzeko...

Elkarrekin sentitzea gure esku dago, ezta, lagunok? ◀



Apirilaren 22an «Euskararen arnasmuneak, erabilaren erroka» hitzaldia antolatu zuen Azebarri.

Azebarri, euskaraz bizitzeko «arnasmunea»

Euskal hiztunen komunitateari irekitako elkarte burujabe eta independentea sortu dute: Azebarri. Lokal berria izango dute laster.

Bertsolaritzaren «babesgune» eta euskararen erabilera bultzatzeko «arnasmunea» legez sortu zuten 2013an Azebarri kultur elkarte. Ordutik, hainbat ekimen egin ditu elkarteak; hala ere, bere burua aurkezteko beharra du oraindino ere eta, horretarako, Azebarri eguna egingo dute ekainaren 6an, Algortako San Nikolas plazan.

2013an elkartearen eratze-prozesuari ekin zioten, eta 2014ko hasierarako, lekua lortu zuten euren ideiak egia bihurtzeko: Lapiko jatetxe ohia. «Leku fisiko bat izatea beharrezkoa zen, euskararen inguruko erreferentzialtasuna eta ekimenak aurrera eramanez ahal izateko», azaldu du Unai Angulo Azebarriko kideak. Hala, 2014ko urtarrilean, Azebarri elkartearen ekinbidearen egoitza bilakatu zen Lapiko jatetxe ohia, eta hala izan zen urte bereko maiatzaren 1era arte. Tarte horretan, kultur agenda, euskararen erabilera bultzatzeko dinamikak eta elkarte gastronomikoa batu zituen; «euskal hiztunen komunitate osoari zabalduko elkarte burujabe eta independente legez definituta», Fredi Paia kideak adierazi duenez. Hala, kultur agendari dagokionez, herriko sortzaileen aldeko apustua egin zuten, eta horietako

Iritziak



“

JOSE ELORRIETA
Ekonomialaria

Euskara oinarritzat duen elkarte baten aldekoa naiz; izugarri erakartzen nau adin, jatorri eta pentsaera ezberdin en arteko lotura horrek.



“

KATALIN LARREA
Irakaslea

Euskaraz bizitzeko «arnasmuneen» beharra agerikoa da, eta hartutako konpromisotik eragin behar dugu.



“

ZIORTZA MANGAS
Psikologoa

Etorkizun ean, elkarteak eman ditzakeen aukerak paregabeak izan daitezke.



“

UNAI ATXABAL
Medikua

Euskararen erabilera jaitsi den honetan, herri guztietan egon beharko lukete Azebarri elkarte bezalako espazioak.

ugari igaro ziren bertatik. Pasa den urteko maiatzaren 1ean, lokal barik gelditu zen Azebarri, berriro ere. Horrenbestez, gaur egunera arte, gune fisiko barik, elkartearen ekinbidea eta lana «ahulduta» geratu direla dio Paia. Hala ere, denbora osoan, proiektuaren sua «bizirik» mantentzea lortu dutela azaldu du, «higadura handia izan den arren». Hilabeteetan, antzeko elkarteak harremanak sortzen eta lantzen ibili dira elkarteko kideak. Era berean, hitzaldiak, barrura begirako bilerak eta lokal berria lortzeko hainbat ahalegin egin dituzte. Azebarriko kideen arabera, beharrezkoa da leku fisiko bat izatea. Hala, elkarteko bazkideek 1.000 euroko ekarpena egitea adostu zuten, gune fisiko «propioa eta egonkorra» izan ahal izateko. Gauzak horrela, Algortako Euskal Herria kaleko Boca-Boca taberna ohia lortu, eta elkartearen egoitza bihurtuko dute «albeit arinen; egokitze-lanak amaitu ondoren».

Azebarri eguna, ekainaren 6an

Ekainaren 6an Azebarri eguna egingo dutela azaldu du Paul Benito del Valle kideak. Hala, elkartearen eredu bera jarraituko dute: «Getxon euskaraz ondo pasa daitekeela ikustaraztea da gure helburua, giro politean arrasti bat pasatu». Horretarako, San Nikolas plaza «euskalduntzen» ahaleginduko dira arratsalde batez, 17:00etatik aurrera. Hori lortzeko, hainbat jarduera antolatuko dituzte, barbarako: jolasak, txorizo-dastaketa... eta fanfarredoinuek alaituko dute giroa. ◀

Beste urte bat obra estreinatuko dute Kurtzio kultur etxean

Jon Urrazak zuzenduta, euren lehenengo antzezlana aurkeztuko dute eskualdeko hainbat aktore amateurrek, ekainaren 5ean Sopelan, 20:00etan.

Sopelako Kurtzio kultur etxean, aurten martxan jarritako helduentzako antzerki taldeak *Beste urte bat* antzezlana estreinatuko du ekainaren 5ean, bari-kua, arrastiko 08:00etan. Lan hori ikasleek sortutakoa da, eta Jon Urrazak zuzendu du. Antzezlana «sorkuntza aktiboaren bidez» sortu dute, klaseetan egindako ariketa, inprobisazio, eszenetatik eta abarretatik abiatuta, «eurengandik hurbil egon daitezkeen pertsonaiak eta gatazkak dramatikoki garatu ditugu, istorio original bat sortu dugu eta entsegu bidez finkatu dugu», azaldu du Urrazak. Zuzendariaren arabera, lanaren izenburuak ez dio argumentuari ezelako erreferentziarik egiten, «sortze eta zuzentze prozesuari eta metodologiari baizik». Hala, Mike Leigh-en *Another year* pelikula-



N. Guijarrubia, O. Kamiruaga, M. Nerekan, I. Gonzalez, J. Ormaza eta L. Begoña izango dira aktoreak. © JON URRAZA

ren izena hartu eta hura itzuli dute; «nik neure klaseetan, umeakaz ere, ikastaro amaierako funtzioa prestatzeko, Leigh-ek pelikuletan erabiltzen duen metodologia erabiltzen baitut, sorkuntza eta aktoreen zuzendaritza uztartuz, interpretaziorik onenak bilatzeko asmoz; naturalak, zintzoak

eta benetakotasunez beteak, antzeztu gabekoak», Urrazaren berbetan. Sopelako tailerrean, aktoreen sormen aktiboa bultzatzen dute, «interpretazio-inprobisazio bidezko sorkuntza zaparrada hori guztia bideratzen noa, eta antzezlanaren egitura borobiltzen saiatzen naiz». Ekainaren 5ean estrei-

natuko dute euskarazko antzezlana, Sopelan. Zuzendariaren arabera, aktoreek euskaraz «ederto» egiten dutenez, «euren hizketaldiak oso natural agertzen dira, benetako euskaran; eta ez produkzio askotan bezala, artifizialki itzulitako euskara aberats, garbi, baina bizitzarik gabekoan». ◀



Eskualdeko eta inguruotako ekoizleek euren produktuak salduko dituzte Altzaga auzoan.

Nekazaritza-azoka egingo dute hilaren 31n Erandion

Uribe Kostako eta inguruotako ekoizleek eta kalitatezko produktuen maitaleek data garrantzitsua izango dute hilaren 31n, domeka, Erandion. Izan ere, egun horretan, Altzaga auzoko Irailaren 23a plazan egingo dute nekazaritza-azoka, goizeko 10:00etatik arrastiko 03:00etara.

Aurtengoa hamahirugarren ekitaldia izango da, eta 26 saltoki egongo dira, guztira. Eskualdeko eta inguruko

ekoizleek euren produktuak erakutsi eta salgai ipiniko dituzte, esaterako: barazkiak, landareak, ezta, txakolina, euskal pastela, ogia, hestebeteak eta gaztak.

Azokaren inguruan, harri-jasotzaileek erakustaldia egingo dute bertaratutako gozamenerako. Txerria burruntzian prestatuko dute, eta eskaini ere bai, txorizo-dastaketagaz batera. ◀

info+: www.erandio.net

Barrika On Air festibalak baditu finalistak

Banda eta DJ lehiaketa antolatu dute lehenengo biderrez Letamina diskoetxeak, Golfo Norte eta Milagros tabernek, Barrikako Jai Batzordeak eta Udalak. Lehenengo edizioan, guztira, 38 parte-hartzaile izan dira: 32 banda eta 6 DJ. Antolatzailerek adierazi dutenez, «oso pozik» daude jasotako erantzunagaz, parte-hartzaileen maila «oso handia» izan delako, eta «kalitatezkoa», gainera. Hori dela-eta, epaileek «lan mardula» izan dute ekitaldi honetako finalistak aukeratzeko orduan. Hala ere, izena eman zuten guztien artean, zortzi aukeratu behar izan dituzte, eta honako hauek izan dira: batetik, Guillermo Marban, The Owl Project, Sangre de Mono eta Somedays Out, banden atalean; eta, bestetik, La Indieteca, Mikel Mix eta Paul, DJ atalean.

Horiek guztiek euren musika saioak aurkeztu ahal izango dituzte, ekainaren 20an izango den jaialdian. Hitzordua arrastiko 08:00etan ipi-

ni dute, Barrikako udaletxe aurreko plazan. Aipatutako finalistez gainera, Gose taldea ere izango da bertan, 01:00etatik aurrera, festibalari itxiera ezin hobea emateko. ◀

Barrika On Air

Non:

Barrikako udaletxe aurreko plazan

20:00

Txapelketako finalisten musika-emanaldia.

01:00

Gose taldeak *Gosariak* lana aurkeztuko du.

Banden finalistak:

Guillermo Marban

The Owl Project

Sangre de Mono

Somedays Out

Djen finalistak:

La Indieteca

Mikel Mix

Paul

Emakumeen futbola, Getxon ikusgai

Emakume futbolari onek jokatuko dute ekainaren 6an eta 7an, Faturan, Emakumezkoen Getxoko IX. Futbol Txapelketan: Bizkerre, Valentzia, Bartzelona eta Athleticek.

Datorren ekainaren 6an eta 7an jokatuko da Roberto Tamayoren omenezko Emakumezkoen Getxoko Futbol Txapelketaren bederatzigarren edizioa, Algortako Fadura futbol zelaian. Bizkerre futbol-taldeak antolatzen du proba klasiko hori, eta kartel erakarria osatu du. Izan ere, etxeko Bizkerreko jokalariez gainera, bertan jokatuko dute Espainiako Ligaren Lehen Mailako lehenengo hiru postuetako taldeetako futbolariak, emozioz beteriko norgehiagoketan. Faturako zelaian, euren teknika erakutsiko dute

Athleticek, Valentziak eta Bartzelonak. Valentzian jokatzen du Beristain getxoztarrak. Bestalde, Bartzelona lautan izan da Ligako txapelduna.

Gonbidatuak, ligaxkan

Azken edizioetako formatu bera izango du Getxoko futbol-txapelketak: ekainaren 6an, zapatua, gonbidatutako Lehenengo Mailako hiru taldeek ekingo diote lehiari. Ligaxka jokatuko dute, 45 minutuko aldietan, Bizkerreko kideek baieztatu dutenez. Denen arteko norgehiagoken ostean, lehenengo eta bigarren sailkatuko diren



Euskal Kopako final laurdenetarako sailkatu da Bizkerre. © BIZKERRE

hamaikakoak pasako dira domekan egingo den finalera.

Doako sarrera

Hirugarren sailkatutakoak Bizkerre-
ren aurka neurtuko ditu bere indarrak, finalaren aurretik jokatuko den deman. Faturako belar naturaleko futbol-zelaian jarraitu ahal izango dira partida denak. Gainera, antolatzailak iragarri dutenez, sarrera doakoa izango da. Beren-beregi emakumezko futbolzaleak gonbidatu dituzte Bizkerre Futbol Taldeak, hitzordu berezi horretara hurbil daitezten. ◀

Emakumezkoen Getxoko IX. Futbol Txapelketaren egitaraua

Ekainak 6, zapatua

17:45 Athletic-Valentzia.
18:45 Bartzelona-Athletic.
19:45 Valentzia-Bartzelona.

Ekainak 7, domeka

09:45 Bizkerre-3. sailkatua.
12:15 Txapelketaren finala.

Kopa pantaila handian ikusteko aukerak

Zapatuan, Espainiako Erregearen Kopa jokatuko du Athleticek. Camp Nou estadioak hartuko du Bartzelonaren aurkako bataila, eta milaka eta milaka jarraitzaile zuri-gorri izango dira bertan zein Athletic Hiria gunean. Hala ere, Uribe Kostan ere milaka izango dira etxean, txokoan, lonjan, tabernan edo herriko plazan partida ikusiko dutenak.



Orain dela bost urte ere, pantailak ipini zituzten.

Udal pantailak

Aukera hori sostengatu dute, besteak beste, Berango, Sopela, Getxo eta Leioako udalak. Horregatik, pantaila handien aldeko apustua egin dute. Berangon, frontoian jarriko dute pantaila, 21:30ean. Aurretik, 18:30etik 20:30era, dantza aktiboa, tailerrak eta material zuri-gorriaren zozketa izango da, Nagusiaren Etxearen aurreko plazan. Getxoko Udalak pantaila bana ipiniko du Algortako Telletxe eta Itzubaltzeta / Romoko Santa Eugenia

plazetan, 21:30etik aurrera. Orain dela bost urte, arazoak izan ziren eguzkiak irudia estali zuelako. Han ere hainbat jarduera izango da, 18:00etatik aurrera. Leioan, Boulevardek hartuko du pantaila eta, arrastiko lehenengo ordutik, puzgarriez eta tailerrez gozatzeko aukera izango dute umeek. Sopelan, berriz, Larrabasterrako Urgitxieta plaza izango da gune zuri-gorria, 18:30etik aurrera. Azkenik, gau osoan metro-zerbitzu berezia izango dute San Mamesera joango direnek. ◀

Leioa Kirol Elkarteak 'draft' bat antolatu du jokalaria berriak taldea indartzeko

Leoak pasa den maiatzaren 17an ospatu zuen lehenengo futbol-taldeak mailari eutsi izana, 2014-2015 denboraldian. Denbora galdu barik, datorren urteari begira daude leioaztarrak. Ander Vitoria eta Ali Diakite jokalariek taldea utzi dute, eta xurru-muruek diote Athleticek interesa agertu

duela Aitor Cordoba erdilari hartzeko. Gauzak horrela, taldea sendotzeko *draft* bat antolatu du klubak: Bigarren Bn edo Gazte Mailan elastiko urdin-gorria jantzi gura dutenek probak egin ahal izango dituzte, ekainaren 9a eta 11 bitartean. ◀

info+: secretaria.tecnica@sdleioa.com

Arenas play-offetan igotzen saiatuko da berriro, hirugarren urtez

Sagua harrapatzeko hiru salto egin behar ditu katuak. Gutxienez, hori dio esaera zaharrak. Arenas futbol taldeak hirugarren aukera dauka Bigarren B Mailara igotzeko, Hirugarren Mailan hirugarren sailkatu ostean. Oviedo Bn aurka 1-0 galdu zuen, aurreko domekan Asturiasen. Eraitza horri buelta eman beharko dio domekan, Gobelan, 18:00etan. ◀



Jon Perezek zuzentzen du taldea. © ARENAS F. T.

Jolaseta, makilak gora!



Sofia Viarengo jokariaren arabera, Goikoetxeak estutu dituelako lortu dute igoera. © JOLASETA

Ohorezko Mailara igotzea lortu berri du Jolaseta-ko belar-hockey taldeak. Pasa den domekan egin zuten getxoztarrek azken balentria Negurin, Sardinerok taldea 2-0 mendean hartuta. Ligako azken partida horrek amaiera bikaina jarri zion denboraldi apartari, eta bigarren postua ekarri zien bertakoei, kategoriaz igotzeko nahikoa. Antonella Bruni eta Sofia Viarengo izan ziren golegileak.

Helburua lortuta

Erdoitza Goikoetxea Jolaseta taldeko entrenatzaileak ez du ezkututzen «oso pozik» daudela: «ligaren hasieratik

borrokatu gara igoeragatik. Bagene-kien Sardinerok jende oso ona duela, eta zuhurtiaz jokatu gura izan dugu, atzealdea ondo itxiz eta partidaren kontrola eramanez: azkenean, irabaztea lortu dugu. Talde gazte xamarra gara, eta ondo etorriko zaigu datorren denboraldian kategorian nagusian eskarmentua hartzea, hazten jarraitu ahal izateko. Taldea hartu genuenean, helburu hori jarri genion gure buruari, eta aurreikusitakoa bete ahal izan dugu». Getxoztarrek 28 puntu lortu dituzte denboraldian; Terrassa txapel-dunaren puntu batera. Gainera, Antonella eta Viarengo jokari argentinarak golegile nagusiak izan dira, 19 eta 17 tanto eginda, hurrenez hurren. ◀

Txinan ere, garaipenak batzen dabil Lointek

Fanny Riberot Lointekeko txirrindulari frantsesak Munduko Kopako hirugarren postua lortu zuen bere selekzioagaz Chongming-en (Txina), maiatzaren 17an. Hain exotikoak izan ez arren, talde sopoloztarreko beste txirrindulari batzuek ere garaipenak lortu dituzte: Ugeragako Rocio Del Alba Gar-

cia madrildarrak Gipuzkoako Emakumeen Itzulia irabazi zuen gazte-mailan; Cristina Martinez valentziarra Villabonako etapan nagusitu zen, Gipuzkoako Itzulian; eta Eider Merinok Espainiako Kopa eskuratu zuen Marinen (Galizia), eta podiuma Belen Lopezegaz eta Cristina Martinezegaz partekatu zuen. ◀



Fanny Riberot, eskuman, Frantziako maillotagaz. © ANTON VOS - LOINTEK



Jon Rham golf-jokalaririk onena da AEBetako unibertsitate-mailan. Ben Hogan izen handiko saria jaso zuen barrikoztarrak hilaren 18an, NCAA unibertsitate txapelketan egindako merituegatik. Arizona Estatuko unibertsitateagaz, lau sariketa irabazi ditu *Rahmbo*-k.

© SHARON ELLMAN - THE BEN HOGAN AWARD

Hirugarrenerako igoera jokoan du Getxo Futboleak

Datorren maiatzaren 31n, Ibarrara bidaiatuko du Getxo Kirol Elkar-teko futbol-talde nagusiak. Aretxabaletako UDA taldearen aurka jokatuko du, Hirugarren Mailarako play-offaren barruan. Ohorezko Mailan bigarren sailkatzeagatik lortu du aukera hori Getxok. Play-offa ez da partida bakarrena izango, ligaxka modukoa baino. Hori dela eta, beste norgehiagoka bat izango du etxean, ekainaren 14an. Orduan, Gasteizko Elgorriaga hartuko dute hori-beltzek Faturako zelaian. Arabako Ohorezko bigarren taldea da Elgorriaga. ◀

Getxo eta Leioa onenak dira 1.000 metroan

Iñigo Cillero eta Martin Gonzalez-Vara Euskadiko Txapelketako lehenengo eta bigarren sailkatu ziren mila metroko kategorian, hilaren 17an Donostian. Cillero Getxo Atletismo Taldeko kidea da, eta Gonzalez-Vara, ostera, Askartza Taldekoa. Cillero getxoztarrak 2'47"10eko denbora egin zuen, Gonzalez-Vara leioztarrak baino 53 ehuneko gutxiago. Bestalde, Claudia Sainz Villate getxoztarra seigarren sailkatu zen 300 metroko proban. Korrikalariaren denbora 49"84 izan zen, Nahia Gutierrez txapeldunarena baino 2"48 gehiago. ◀

Zorion agurrak hirukan



Gure odikiak 2 urte bete ditu. Zorionak, Matalen!!



Dagoeneko jare gure artean dugu. Zorionak, familia!!

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki txikiaren prezioa 5€koa izango da; argazki ertainarena, 9€. Argazkia eta testua eguaztena baino lehen beharko ditugu...

Bidal egiguzu zeurea!
Idatzi zure mezua eta bidali argazkia:
Tel.: 94 491 13 37
e-posta: publi@hiruka.eus

Gizarte Sariak baditu irabazleak



30 bat ontzik parte hartu zuten Getxoko Gizarte Sarian. © ABRACO ITSAS ERREGE KLUBA

Pasa den aste akabuan lehiatu zen Abrako Itsas Errege Klubak antolatutako Getxoko III. Gizarte Sariaren azken jardunaldia. Gurutze-ontzi kategoriari dagokionez, Javier Onaindiaren *Symphony* ontzia nagusitu zen A mailan. B mailako sailkapenean, berriz, Juan Valdivia nabigatzaileak eta *Gaitero* bere belaontziak erabateko garaipena lortu zuten. Era berean, Javier Truebaren *Nexus* ontziak puntu bateko aldea atera zion Iñaki Landaluzeren *Sandra* bigarren sailkatuari, C mailan. Azkenik, J80 mailan, Jose Azquetak pilotatutako *Biobizz* ontzia lehen postuan sailkatu zen, lehiatutako hiru ibilbideetan nagusitu ostean. ◀

Lehenengo kanporaketa egin dute San Nikolas Pala Txapelketan

Hilaren 4an abiatu zen Algortako San Nikolas plazako frontoi bitxi eta herrikoiak hartzen duen pala-txapelketa. Guztira, 120 jokalaririk inskribatu dira: 60 bikote. Aurreneko aldiz, antolatzaileek talde bitan banatu dituzte: lehenengo maila eta bigarren maila. Enaitz Betanzos antolakuntzako kideak azaldu duenez, maila bakoitzak bikote-kopuru bera dauka, «kasualitatez». Daborduko, lehenengo kanporaketa jokatu dute: 16 bikote sailkatu dira final zortzirenetarako, maila bakoitzean. Getxoko Pilota Taldeko emakumeek bikote bi osatu dituzte; gizonezkoak dira, ostera, gainontzekoak.

Funtzionamendu herrikoa

Betanzosek gogoratu duenez, besteak beste, plaza girtzeko helburua dauka

txapelketak. Hori dela-eta, asteguntan jokatzeko dituzte norgehiagokak. Agenda arazoren bat dela-eta, atzeratutako partidak bakarrik jokatzeko dituzte aste akabuetan. Izan ere, jokalariek eurek esan zieten antolatzaileei noiz zeuden libre pala astintzeko, eta hori gogoan hartuta, egitaraua osatu zuten.

Finala, ekainaren 19an

Denen arteko komunikazioa errazteko, WhatsApp taldea sortu dute. Jokalariek aukera dute bikote arerioagaz harremanetan jarri eta partida egunez eta orduz aldatzeko. Aldagai bakarra da ordezkazina: San Nikolas plazako frontoian jokatu beharra dago, bertako bote bihurriaz gozatzeko. Faseak aurrera doaz, eta ekainaren 19an egingo dute finala, jai-giroan. ◀



Agirre Espainiako Ohorezko Mailako txapelkunordea ere bada. © GETXO RUGBY TALDEA

Nerea Agirreren zilarra, Parisen, Euskariansegaz

Parisko Centrale 7. sariketa garantzitsuen zilarrezko domina lortu du Nerea Agirre Pomelo Getxo Rugby Taldeko jokalaririk, Euskarians konbinatuaren partaide legez. Euskal herritarrek hauek izan zituzten arerio: Lituania eta Portugalgo selezioak, Tuks Ladies hegoafrikarrak, eta Frantziako JDC7 eta Parisko unibertsitateko taldeak. Pasa den maiatza-

ren 20an eta 21ean jokatu zen Zazpiko modalitateko txapelketa. JDC7 zazpiko frantsesak irabazi zuen. Agirrez aparte, La Unica, ASB, Hernani, Durango eta Gaztedi taldeetakoak izan ziren Euskariansek deitutako jokalaririk. Gizonezkoek dagokienez, Bera Berak, Athleticok, Durangok, BOPBek eta Aviron Bayonnais-ek utzi zituzten jokalaririk onenak Euskariansi. ◀

REBEL TATTOO

Basagoiti 73, 48991 ALGORTA
Tf. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

I

Iñaki Bitxitegia

MONTBLANC, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Tellebxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAVRKO!

GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Kezkatuta zaude, hauteskundesetatik egun batzuk pasatu eta gero, politikariak politikarien politikakariak egiten dabiltzalako daborduko...



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Agian, ez dute merezi izango, baina berriro ere bozkatu behar izango bazenu, berberei emango zenietan botoa, zalantza barik.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Adurizen kamiseta, prest; Piraten bufanda, lepoan; Begoñako Andra Mariren domina, bihotz ondolan; jaits zaitezke tabernara finala ikustera!



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Kuadrillakoek behin eta berriro egin dizute kritika: «Zeuk bakarrik ez duzu jarri balkoian bandera zuri-gorria!». Eta zu triste, balkoi barik...



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Ikasi beharra duzu, badakizu, baina ezin duzu urteko partida galdu estudiatzeagatik. Atsedentxo bat egiteko baliatu.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ez diozu hori entzun gura, baina jakin badakizu esaten duen dena egiazkoa dela. Beraz, har egizuz kontuan bere berbak.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Zapatuan, bat-batean, mundu osoa izoztuko da. Jen dea pantailatera begira... Sentituko duzu biztanle bizidun bakarra zarena planeta honetan.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Bada garaia esateko gurasoei, sendiari eta lagunei. Ez jarraitu gehiago armairuaren barruan. Aitor-tu zure bihotzean Real zalea zarena.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Bozkatu aurretik jakin izan bazenu orain zer esaten duten, birziklatzeko ontzian legoke haien boto-papera, eta ez hautetsontzian!



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Athletic zalea bazara, sutsua gainera, baina zertara dator hainbeste publikizitate-iskanbila? Taldea txarto zebilenean, non zeuden orain agertu direnak?



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Ohetik altxatzea izango da bihar egin beharko duzun ahalegin bakarra. Hortik aurrerako dena, lasai, berez ondo joango da. Disfrutatut eguna.



Soluzioa



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Aste akaburako plangintza lagunak egitekotan, ez zara damutuko. Ohi den legez, ederto pasatuko dituzu egunak.

Zazpi ezberdintasunak



HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

1 Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

BAZKIDE ERABILTZALE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
- **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:

- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota : 33 €
- **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota : 33 €

2 Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

HIRUKA LAGUNA

- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

Bazkide Erabiltzailea

Bazkide Laguntzailea

Hiruka laguna

Urtean 35€ Urtean _____ €

Izena

NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea

Heria

Herrialdea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronte zenbakia

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak libxategi automatikoki batean sartuko dira, erabiltzaileekin harremanetan jaritzeko eta HIRUKAREN informazioa eta publikitatea helarazteko. HIRUKAren erabiltzaileek aukeratu duten informazioa ez da erabiltzen bereziki. Erabiltzaileek ez dute bere datuak erabiltzen aurreratu beharrik. HIRUKAren erabiltzaileek ezin izango dituzte beren datuak erabiltzeko. Edo kentzeko bere esabildak bete dituzke. Helbide postarria: hiruka@hiruka.eus

«Sakelako telefonoan telebista doan eta Internet barik ikustea egingarria da»

Ander Barroso astrabuduarrak Itelazpi saria irabazi du, telebista digitalek eta azken belaunaldiko mugikorrek etorkizunean erabili beharreko irizpideen gaineko ikerketa bati esker. Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Graduko titulua dauka; gaur egun, espezialitate bereko masterra egiten dabil EHUko Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan. Ikasteaz gainera, praktiketan dihardu Barrosok 3dB Consult enpresa bilbotarrean; saria lortu duen eremu berean egiten du lan enpresa horrek.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Ez da erraza azaltzea kaletar bati Ander Barroso astrabuduarrak egindako ikerketaren muina. Baina, frekuentziak gorabehera, azterketaren ondorioetako bat hau da: sakelako telefonoek eta tabletek telebista-seinalea doan eta Internetera konektatu barik hartu ahal izango lukete, hainbat gomendio jarraituz gero. Hori ulertuko ez duenik...

Zer suposatzen du Itelazpi saria irabazteak?

Proiektua egiten, hainbat hilabete eman ditut. Hala, horrelako sari bat irabaztea ondo dago: egin duzun lana besteek aintzat hartzea. Beste alde batetik, lagundu egiten du curriculum osatzen eta enpresen aurrean irudi ona ematen.

Zer ate zabalduko dizkizu?

Momentuz, egia esanda, askorik ez. Apurtxo bat bada ere, ezagutzera eman dut nire burua. Gainera, irailean-edo, Itelazpi enpresara joan beharko dut proiektua berriro aurkeztera... Horrela, zuzen-zuzenean, ez du ate askorik irekitzen, baina baten batzuk bai.

Gai gehiago egongo ziren... Zergatik aukeratu zenuen hori ikerketa egiteko?

Bada, unibertsitatean hainbat proiektu eskaintzen dituzte urtero, eta nik jakin banekien telebistaren ingurukoak zeudela. Horri buruzko ikerketa egin gura nuen interesatzen zaidan gaia delako eta ordura arte

ez neukalako oso jorratuta. Telebistaren inguruko gaien artean, arreta handien eragin zidana aukeratu nuen.

Zelan azalduko zenioke ikerketaren muina horrelako terminologiagaz ohituta ez dagoen bati?

Kar, kar. Ez da erraza. Alde batetik, arazo bat sortu zaigu. Gaur egun, telebista transmititzen duen frekuentzia-tartea oso ona da bere ezaugarriengatik, irismen handia daukalako. Baina, frekuentzia horiek gura ditu telefonia mugikorrek ere. Gehienbat,

“ Ikerketaren emaitzak aplikatzea ez dago nire esku. Baina baliteke hemendik urte batzuetara ikustea ”

gaur egun 4G izenagaz ezagutzen dugun teknologia berrirako.

Eta zein da arazoa? Horren larria da?

Telebistak berriro sintonizatu behar izan ditugu azken hilabeteotan, gure etxeetan; hain justu, telebistari zegozkion frekuentzia batzuk telefonia mugikorrari eman dizkiotelako. Arazoa zein den? Bada, gero

eta frekuentzia gehiago kentzen ari zaizkiola. Telebistak badauka bere tartea, baina ezin dizkiogu frekuentzia denak kendu, ezin izango litzatekeelako transmititu. Hala, proiektuan proposatzen dut beste frekuentzia-tarte txikiago batzuetan transmititzea. Gaur egun 400 eta 800 megahertzegaz dabil telebista, eta nik proposatzen dut 200 MHz-ra jaistea.

Etorkizunean, zer gerta liteke?

470 eta 862 MHz artean zebilen telebista-seinalea, orain dela gutxi berriro sintonizatu egin behar izan genuen arte. Orain 785era arte heltzen da bakarrik. Hortik gorako frekuentzia denak kendu dizkiote, eta 700 MHz gorakoak ere kenduko omen dizkiote. Nik ikusten dudan irtenbide bakarra da frekuentzia baxuago horiek erabiltzea.

Horiek erabiltzen ez badira, zer gertatuko litzateke?

Frekuentzia-tarte handi horiek beharrezkoak dira telebista-kanal gehiago ikusi ahal izateko. Baina, frekuentzia-tartea kentzen badiote, telebista-kate gutxiago ikusi ahal izango ditugu, edo kate kopuru berbera ikusi ahal izateko, kalitatea askoz ere txikiagoagaz izan beharko du. Ez dut uste jendeak hori gura duenik.

Arazoa konpontzeko zer egin beharko litzateke?

Ez dut proposatzen soilik frekuentzia jaistea. Telebista estandarra ere berritu beharko litzateke. Orain dabilgun LTDaren ondorengoa erabiltzea da gakoa



(TDT, gaztelaniaz). DVB-T da LTDaren izen teknikoak; hala, DVB-T2 erabili beharko genuke. Frekuentziak modu efizienteagoan erabiltzen ditu DVB-T2k.

Zer beste abantaila ekarriko luke horrek?

Besteak beste, doan eta Internetera konektatu barik, telebista-seinalea hartu ahal izango lukete sakelako telefonoak eta tabletek; tarifako *megabyte*-rik ez luke kontsumituko.

Ez da egia izango! Posible da hori Interneteko tarifa gehiago ordaindu barik?

Bai, egia da. Gaur egun hori ez da posible, gaur egun erabiltzen dugun estandarraz: DVB-T edo LTDgaz. Baina DVB-T2 ez da gauza bera. Horrek ahalbidetzen du gailu mugikorretan telebistaren seinalea hartzea. Horretarako prestatuta dago. Gertatzen dena da sakelako telefonoak ez direla kapaz oraindino deskodetzeko telebista-seinale hori. *Pendrive* baten neurri hargailu txiki bat erabili beharko genuke, eta hori gure telefonia-gailuetara konektatu.

Zer funtzio izango luke gailu horrek?

Aparailu txiki horrek seinalea hartu eta deskodetuko luke, gure telefono mugikor, tablet edo horrelako gailuetan telebista ikusi ahal izateko. Gainera, abantaila bat ere badauka: hargailu horrek zuzenean harapatzen du telebistaren seinalea. Interneten beharrik ez dago; etxeko teilatuan daukagun antenaren parekoa da gailua.

Zelan uste duzu hartuko luketela telebista-kateak?

Bada, egia esanda, uste dut oso ondo hartuko luketela. Azken finean, telebistek eduki dezaketen gale-retako bat izan daiteke, Internet konexioa gero eta hobeagoa denez, jendeak telebista sarean ikustea, telebistaren seinalea zuzenean erabili ordez. Jauzi hori gertatzen bada, hau da, edonork edonon telebista ikusi ahal izatea lortzen bada, izugarriko abantaila izango da ikus-entzunezko hedabideentzat. Izan ere, gaur egun jende gutxik ikusten du telebista egunez, lanean edo ikasten gabiltzalako.

“Entzun dudanagatik, gero eta jende gehiago doa atzerrira, lan bila. Hemen aurkituko ez banu, ez nuke birritan pentsatuko”

Telefonia eta Internet enpresek horren ondo hartuko lukete aldaketa?

Ez lukete horren ondo hartuko telefonia eta Internet enpresek. Izan ere, Internet konexio gero eta hobeagoa ematea gura dute enpresa horiek; batez ere, gailu mugikorretan. 4G aparailuak aurki ditzakegu merkaturuan, eta 5G delako horretan ere bai, lanean daude daborduko. Hala ere, alde horretatik, ez lukete gale-

ra handiegirik sumatuko, sarera ez garelako konektatzen bakarrik telebista ikusteko. Galera txikitxo bat baino ez litzateke izango, nire iritziz.

Zer beste ondorio atera dituzu zure ikerketan?

Ondorio teknikoak izan dira, batez ere. Egindako ikerketan ikus daiteke posible dela transmititzea 200 MHz inguruko banda horretan eta, gainera, irismen handiagoa dagoela frekuentzia baxuagoetan. Hori oso ona da, luzera handiagoko estaldura eman dezakezulako transmisore bakar batez. Finlandian daborduko, badabiltza horrelako sistemaren bat erabiltzen.

Bederatzi hilabete eman dituzu ikerketa prestatzen. Zailtasunik aurkitu duzu bidean?

Egia esateko, bai. Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Graduak azken ikasturtean egin nuen proiektua. Gauzak hala, ikerketa-lana egiten nabilen bitartean, ezin nituen ikasketak eta azterketak alde batera utzi. Alde horretatik, ez da erraza izan: batzuetan, alde batera utzi behar nituen ikasgaiak, proiektua prestatzeko; beste batzuetan, alderantziz... Beste alde batetik, alde teknikoari dagokionez, hasi aurretik DVB-Ti buruz ez nekien gauza handirik, eta nire kabuz ikasi behar izan dut dokumentu pila.

Hala ere, laguntza ere izan duzu, ezta?

EHUko Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoko Pablo Angueira irakaslearen gainbegiradapean egin dut proiektua. Berak hasiera-hasieratik eman dizkit nire ezagutzak osatzeko behar nituen dokumentu denak, eta trahatu izan naizenean, bertan egon da beti, irtenbidea bilatzen laguntzeko.

Behin saria jasota, ikerketa gauzatzeko aukerarik ikusten duzu?


Egia esateko, hori ezartzea ez dago nire esku; Telekomunikazioen Nazioarteko Batasuna izeneko erakundeak erabakitzen ditu telebistentzako zein telefono mugikorretzako frekuentziak. Hala ere, saria jaso nuenean, Itelazpiko zuzendariak berak esan zidan arazoa konpontzeko etorkizunean aurreikusten den irtenbide bakarrenetarikoa bat dela proiektuan proposatzen dena. Neuk ez dut gauzatzeko, gauza potoloa delako, baina baliteke hemendik urte batzuetara gertatzea...

Etorkizunean, non ikusten duzu zure burua?

Hori esatea zaila da. Gaur egungo egoeraz, ez da batere erreza. Batek daki! Hemen, Euskal Herrian, geratu gura nuke, baina batek daki. Nire lehenengo asmoa hori da, hemen lan egitea eta bertan garatzea nire etorkizuna. Baina, aukerarik ikusiko ez banu, ez nuke birritan pentsatuko. Nire inguruan entzuten dudanagatik, gero eta jende gehiago joaten ari da kanpora lan egitera. ◀

Telekomunikazioen munduan noraino gustatuko litzazuke heltzea?

Bada, ez dakit. Argi daukat honetan lan egin gura dudana nire bizitzan, gustatzen zaidalako mundu hau. Imajinatzen dut, hasiera batean, lan teknikoak egiten direla gehienbat. Eta gero, urteak igarota, gehiago direla gestio-lanak. Momentu honetan, lan teknikoak eta Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzarekin zerikusia daukaten lanak gustatzen zaizkit. Hemen ez bada, kanpoan izango da, baina telekomunikazioen munduan lan egingo dut nik. ◀



Mundukatuak

Husam Lubbadah nablusdarra

«Hemengo gastronomiak jatorri arabiarra du»

Urte luzez Algortan bizi ostean, Leioan bizi da gaur egun Husam Lubbadah. Palestinarra da sortzez, baina Bagdaden (Irak) ere bizi izan da, gurera ikastera etorri baino lehenago. 1975ean heldu zen Euskal Herrira, eta bertan burutu zituen goimailako ikasketak; hasiera batean, Aeronautika ikasteko asmoa izan zuen arren, azkenean, Nautika-zientziak ikasi zituen, «aeronautika ikastea oso garestia zelako».

Zer bisitatu

Nablus hiria munduko zaharrenetarikoa bat dela dio: «mila urte baino gehiago ditu alde zaharrak». Hiria bere horretan, erromatarrek sortu zuten 72. urtean, baina Biblian Siquem izen historikoagaz ere agertzen da: «judutarren hiriburua izan zen, David erregearen garaian». Zibilizazioaren eta erlijioen sorlekua da Palestina:

«judaismoa, kristautasuna eta islamismoa bertan hasi ziren». Hainbat zibilizazioen hondarrak aurki daitezke, berbarako, erromatarrenak eta greziarrenak; «mundu osoa igaro da Palestinatik, eta greziar jatorrikoak gara

“ Mundu osoak izan du eragina Palestinan, zibilizazio ugari igaro dira bertatik ”

palestinarrak, Kretakoak, hain zuzen ere». Nablus oso ospetsua da hango pastengatik; halaber, antzinatik oso ezaguna da bertan egiten den oliboa, eta olio horregaz egiten duten xaboa ere bai; «mundu osoko artisautza azoketan aurki daiteke hori». Edateko, fruta mota askotako freskagarriak edaten dituzte, «hona oraindik heldu

ez diren fruta mota asko daude Palestinan». Espainiar Estatuan jaten den 10 plateretatik 8k jatorri arabiarra dutela dio, «esajeratu barik». Paella, esaterako, bertakoa dela dio: «hitzak berak ere, ‘paella’-k, ‘soberan gelditzen dena’ esan gura du».

Harritzekoak

Ezer gutxik harritu zuen Lubbadah, gurera heldu zenean. Jendearen kultura-maila «baxua» harrigarri iruditu zitzaion, «hemen inork ez ditu ezagutzen bere sustraiak». Era berean, garaiko janzkera deigarri egin zitzaion: «Hona heldu baino lehen, moda Madrileran baino lehenago heltzen zen Palestinara». Aitortzen du bestelakoa dela oraingo egoera, «80-90eko hamarkadetan sortutako korrante erlijiosoagatik. Nolabait kontra-autodefentsa da, mendebaldeko kulturaren erasoei aurre egiteko», azaltzen du. ◀

NOR DA

Nongoa

Nablus (Palestina)

Adina

63 urte

Zertan dabil

Ebanista

Ikasketak

Nautika-zientziak

Noiztik Euskal Herrian

1975an etorri zen gurera ikastera. Karrera amaitu ostean, bertan maitemindu, eta Algorta hartu zuen bizileku. Egun Leioan bizi da. Emaztea eta bi seme-alaba dauzka.

NONGOA DA



Lurraldea

Palestina

Azalera

6.520 km²

Ingurua

Nablus

Biztanleria

Hirian 134.166, eta errefuxiatuen bi esparruetan 35.387

Hizkuntzak

Arabiera da hizkuntza ofiziala, Palestinako Oinarriko Legearen arabera. Hala ere, hebreera eta ingelesa asko erabiltzen dira; izan ere, Israelgo establimen duetako kolonoak Palestinako biztanleen %16,1 dira, eta hebreera dute ama-hizkuntza. Era beran, palestinar askoren bigarren hizkuntza da hebreera.

Dirua

Israelgo shekel berria, eta Jordaniako dinarra.

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. solairua 48991 GETXO

e-Posta: hiruka@hiruka.eus

Posta Kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Erredakzio-burua: Irantzu Sagaminaga

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julen Nafarrate, Iñigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Hodei Torres

Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri

Publizitatea: Erika Martinez eta Ninbe Landa

Kudeaketa: Ziortza Merino

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege Gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95 CC-BY-SA

Ale-kopurua: 8.000 ale



Erakunde laguntzaileak:



Helduak busek litikako Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jasotzen dituzte.